


LITERATUR LEHIAKETA 2014 ORIO



ESKOLAUMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2014

ORIO



Azala: Beñat Uranga
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

AURKIBIDEA

Hitzaurrea. <i>Marisa Arruabarrena</i>	5
Amaren urteak. <i>June Amilibia</i>	7
Momiak Mikerinosen. <i>Iker Larrañaga</i>	9
Nor zara zu? <i>Nora Veiga</i>	11
Baserrian esnatu. <i>Aimar Arruti</i>	12
Xabi, Alex eta Asier espazioan. <i>Xabier Azkue</i>	13
Ane eta lapiko magikoa. <i>Maren Iturbe</i>	15
Txakurra. <i>Naia Orzaiz</i>	18
Lagunak. <i>Leire Olariaga</i>	19
Hamaiketakoaren misterioa. <i>Amaia Rodriguez</i>	21
Josuren abentura. <i>Malen Albeniz</i>	23
Denbora. <i>Sara Mujika</i>	25
Siglak. <i>Jugatz Aduriz</i>	27
Udaran moilan. <i>Nahia Uranga</i>	29
Aitona nekaezina. <i>Antton Iturain</i>	31
Amatxo. <i>Ekhi Gozategi</i>	32
Bihotzeko leihoa. <i>Andrea Agudo</i>	33
Bihotza. <i>Eider Urain</i>	34
Zu. <i>Eider Peiro</i>	35
Hobby-ak berreskuratzen. <i>Borja Esnal</i>	37
Amona Xexili. <i>Aratz Oliden</i>	39
Bizitzak erakusten diguna. <i>Ane Izagirre</i>	41
Eraztunen Jauna. <i>Maria Manterola</i>	45
Ipuin bat hirurogei minututan izkribatzeko. <i>Enara Larreta</i>	53
Mesede bat. <i>Ione Zinkunegi</i>	57
Orbana. <i>Leire Izagirre</i>	64

Hitzaurrea

Sanpedroak iristeko zain egoten ginen garai haietan, eskabetxeriako tuboetako jolasak ugaritzen zirenean gurean, San Juan Berden beti gurea irabazle zenean... ume-joko haietan guztietan ZU zinen nagusi.

Baina herrian ezin ZUREKIN aritu eta Zarautzera erbesteratu ninduten.

Han hasi zen nire bizitzako bidaia amaigabea. Eta beti ZURE BILA!

Eta gaur, eskolaumeen literatur lehiaketa honen hitzaurrea egiteko eskatu didaten une honetan, oroitzen ari naiz gure etxekoei lehen idazlana argitaratu zioteneko hartan nola ZU, hain gurea izanagatik ere, gure aiton-amonek biloben hitzak irakurtzean zuten ezintasuna.

Baina, kontuak kontu, egungo gure ume/gazteen artean jokorik dibertigarrienean ZU zara garaile.

Eta horren guztiaren erakusgarri jarraian datozen *obrak*. Bai, gure ume/gazteek libreki esan eta adierazi nahi izan dutena liburuxka honetan bildurik.

Goza dezagun bada beren esanez, goza dezagun ZU izango baitzara gu guztion arteko benetako lotura eta gidari bakarra.

Azkenik, hitz hauen bidez, eskaera egin nahi diot gure herriari: egiteke duen bidaia amaigabea ZU izan zaitzala beti gidari.

ZU

ZUREKIN

ZURE BILA.

Marisa Arruabarrena

Amaren urteak

Herri txiki batean bizi zen familia bat: ama, aita eta seme-alabak. Anai-arrebak beti elkarrekin ibiltzen ziren, urtebeteko aldea baitzuten. Mattin eta Edurne izena zuten. Mattin oso irudimen handikoa zen eta arrebak berak esandakoa egiten zuena zen.

Amaren urtebetetzea zela-eta, zer oparituko pentsatzen ari zirela, mutilari bururatu zitzaion ilargia oparitzea. Ilargiraino nola iritsi eta abar pentsatzen ari ziren, eta bururatu zitzaion ilargiraino eskailerak egitea.

Eguna joan, eguna etorri, eta eskailerak egin eta egin jardun ondoren, hor non abiatzen diren. Aurrena neska igotzen hasi zen eta, ondoren, mutila igo zen.

Edurne iritsi zenean, hanka ilargiari itsatsita gelditu zitzaion.

Halako batean, konturatu ziren eskailera puskatzen hasi zela eta Mattinek salto egin zuen lurreraino. Edurne beheraka hasi zenean, berriz, ilargia berarekin ekarri zuen.

Amaren urtebetetze eguna iritsi zen eta eman zioten ilargia. Amak ezin zuen sinetsi ikusten zuena eta, bat-batean, askatu egin zuen, mundu guztiak ikusteko eta gozatzeko bere edertasunez.

Geroztik, Mattin eta Edurneren amari esker ikusten dugu ilargia zeruan.

June Amilibia



Aimar Arruti

Momiak Mikerinosen

Bazen behin, Irlandako herri txiki eta polit batean, Yest izena zuen mutiko bat. Haren aitona Egipton lan egiten zuen gaztetan. Han piramideak aztertzen egiten zuen lan eta bere abentura guztiak kontatu zizkion. Orduan hasi zen Yest pentsatzen, handitan, Egiptora joango nahi zuela.

Yestek 21 urte bete zituenean, Egiptora joatea erabaki zuen. Hegazkinean ordu asko eman zituen. Iritsi zenean, Xhiu hotelera abiatu eta han utzi zituen maletak, bere gelan.

Yest oso mutil azkarra zen, begi urdinak eta hortz zuri-zuriak zituen. Yest orduan hasi zen piramideak aztertzeko praktiketara. Orduan, bere aitonaekin gogoratu zen, haren makaltasuna, haren jakinduria, begi berdeak, ile grisa... Gero eta gusturago joaten zen praktiketara aitonaekin gogoratuz.

Azkenean, iritsi zen eguna: eskurtsio bat egin behar zuten Mikerinos piramidera sartzeko, eta Yest oso pozik jarri zen. Beti bezala, bere abenturetako motxila hartu zuen. Nahiko motxila handia zen eta barruan hainbat gauza zeraman: pare bat ezpata, aizkora bat, janaria, bixera bat, ura eta piramideak aztertzeko beste hainbat gauza.

Denak oso urduri zeuden. Arnasa sakon hartu zuten eta barrura sartu ziren. Barrendik oso ilun zegoen piramidea, baina zulo batetik eguzki izpi bat sartzen zen. Orduan, Yest konturatu zen ispilu bat zegoela lurrian; hura garbitu eta eguzkiari begira jarri zuen eta, orduan, beste ispilu bati jo zion eta, horrela, piramide barrua argitu zen. Gela asko ikusi zituzten eta, faraoiaren ganberara ailegatu zirenean, hor ikusi zituzten sarkofago pila. Denak irekitzen hasi ziren eta azkenekoa faraoiarena zen eta eskuetan diamante bat zuen. Yest diamantea hartzen hasi zen eta, hartu zuenean, momia guztiak esnatu egin ziren. Orduan, Yestek bere ezpatak atera zituen. Bere lagunek hori ikusi zutenean, berek ere ezpatak zituztenez, atera egin zituzten eta kin-kan-kun, hor hasi ziren borrokan.

Orduan konturatu zen Yest, momien bihotzean ezpata sartuz gero, hondar bihurtzen zirela eta esan zuen:


—Denok ezpatak momien bihotzetara!

Eta horrela akabatu zituzten momiak.

Azkenean, Yestek han, Egipton, aurkitu zuen bere ametsetako emaztea eta seme zoragarri bat izan zuten, Yesti izenekoa. Semea pixka bat handitu zenean, berari ere kontatu zizkion bere abenturak.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila faraoiaren ganberan.

Iker Larrañaga



Ioritz Larrañaga

Nor zara zu?

Nor zara zu?
Nor zara zu?
—Ni Paula naiz.
Paula zara zu?
Nire ahizpa txikia?
Hondartzara joan zarenean
jaso al dituzu palak?
—Bai, jaso ditut palak!
Eta baita
hondartzako izarrak ere.
Zuretzako.

Nora Veiga

Baserrian esnatu

Ohetik altxa eta
Kikiriki!
Zer da soinu hori?
Aaaa!
Oilarra da kantari
eta ni dutxan abeslari.
Atea irekiko diot berari,
kanta eder bat
abestu diezaiogun elkarri.

Aimar Arruti

Xabi, Alex eta Asier espazioan

2014. urtean Xabi, Alex eta Asier oso ospetsuak ziren.

Xabi eta Asier ilehoriak ziren eta Alexek, berriz, ile marroia zuen.

Ameriketako Estatu Batuetan bizi ziren eta gehien gustatzen zitzaiena espazioko gauzei buruz jakitea zen.

Egun batean espazio-ontzi bat asmatu zuten 12 propulsoreekin. Espazio-ontzia gasolina askorekin bete eta espaziorantz abiatu ziren. Propulsoreak puskatu egin ziren eta Marten geratu behar izan zuten. Han martzianoak ikusi zituzten. Hiru lagunek traje espazialak jantzi eta espazio-ontzitik atera ziren. Marten martzianoen lagunak egin ziren eta Alexek esan zien martzianoei:

—12 propulsore egingo al zenizkiguten, mesedez?

—Bai, noski, egingo dizkizuegu.

Espazio-ontzia konpondu ondoren, agurtu egin ziren.


Baina, etxera bueltatzen ari zirela, zulo beltz baten ondotik pasatzen ari zirela, ia zulora sartu ziren, baina martzianoek salbatu egin zituzten. Xabik, Alexek eta Asierrek, egin zutena eskertzeko, beren mundura gonbidatu zituzten. Mutilen mundura iritsitakoan, merendola bat antolatu zuten. Amaitutakoan, martzianoak beren mundura bueltatzera zihoazen, baina konturatu ziren beren mundua ez zegoela. Eta lurreko denak ikertzen hasi ziren bitartean, martzianoak lurrean zeuden itxaroten ea ze pasa zen beren munduarekin. Laster jakin zuten zer gertatu zen; gertatu zena zen zientzialari gaizto batek makina bat asmatu zuela gauzak txikiago bihurtzeko eta polizia zientzialari gaiztoa harrapatzera joan zen baina hark txikitu egin zituen denak.

Zientzialari gaiztoak espazio-ontzi bat lapurtu zuen eta, gero, ilargiaren atzean ezkutatatu zen eta, horrela, inork ez zuen ikusten. Hor base bat zeukan, atmosfera plasmaz inguratuta, eta nola plasma beroa zen, sartzen ziren gauzak puskatu egiten zituen. Horrela, zientzialaria ere beroa zegoen.

Baina Xabi, Alex eta Asier hiru pistola laserrekin ilargira abiatu ziren. Laserrekin plasmako barrerari disparatu zioten eta barrera puskatu egin zen. Zientzialari gaiztoa izoztu egin zen eta, gainera, asteroide guztiak haren gainera erori ziren. Zientzialari gaiztoa hil egin zen.

Orduan, Asierrek gaiztoaren pistola hartu eta Marte berriro handia egin zuen. Poliziak ere handitu zituen eta estralurtarrak beren planetara joan ziren.

Xabier Azkue



Aratz Salsamendi

Ane eta lapiko magikoa

Parisen bazen Miarritze izeneko jatetxe bat. Jatetxeko nagusiak euskaldunak ziren eta alaba bakarra zuten, Ane. Jatetxera, hiriaren erdigunean zegoenez, jende asko joaten zen.

Ane 10 urteko neskatila lirain eta azkarra zen, eta gurasoei laguntzeko prest egoten zen.

Behin Ane eta bere gurasoak Miarritzera joan ziren oporrak pasatzera, lehengusuen etxera.

Miarritzen, ia egunero, hondartzara joaten ziren. Oso dotorea zen hango hondartza eta jauregi polit bat zuen. Lehengusuek kontatu zioten jauregi hartara errege-erreginak joaten zirela eta itsaso hartan bainatu.

Behin, hondartzako pasealekutik zihoazela, andere bat hurbildu zitzaien; agure zahar bat zeraman gurpildun aulkian. Zera esan zien:

—Eramango al duzue agurea bere etxera? Helbidea hau da.

Denak harrিতuta geratu ziren, baina agurea eraman zuten etxera. Etxera iritsi zirenean, agureak sekretu hau kontatu zien:

—Itsas labarretako kobazuloan giltza bat dago. Giltza horrekin jauregiko dorre altuenean dagoen kutxa irekiko duzue. Kutxa ispilu atzean ezkutaturik dago. Han lapiko magikoa aurkituko duzue. Lapiko horrek janari onenak egingo dizkizue.

Ane eta lehengusuak agureari kasu egitea erabaki zuten eta, orduan, giltza nola hartu pentsatzen hasi ziren.

Anek bazekien nola: urpekariz jantzi eta salto egin zuen uretara. Kobazuloaren sarrean olagarro handi bat atera zitzaion eta, erabat beldurtuta, korrika alde egin zuen handik. Lehengusuengana joan zen laguntza eske.

Beñat lehengusuak esan zion:

—Ni sartuko nahiz; ez dut beldurrik eta urpekari trebea naiz. Hala ere, zuen laguntza beharko dut.

Hurrengo egunean, goizean goiz, dena prest zuten eta Beñaten txalupan kobazulora iritsi ziren.

Beñat, urpeko jantziarekin eta soka luze bat lotuta, hondoratu egin zen.

Han zegoen olagarroa. Beñatek sarea bota zion gainera.

Orduan, kutxa ireki eta giltza hartu zuen Beñatek. Txalupakoek, konturatuta gorantz zetorrela, sokatik tira eginez lagundu zioten irteten.

Pozik eta algaraka itzuli ziren txalupan, giltza eskutan zutela.

Ane arduratu zen giltzaz eta, handik aurrera, jauregira nola sartu pentsatzeari ekin zioten. Halako batean, asmatu zuten nola. Trikimailu batez atezaina engainatu, Ane eta Beñat jauregira sartu eta ongi ezkutatu ziren jauregiko lorategian.

Jauregikoak bazkaltzera joan zirenean, ezkutalekutik atera, eta erreginarean gelan sartu ziren.

Beñatek bazekien zein zen gela, behin eskolarekin jauregia bisitatzera joan zirelako.

Agureak esan zien bezala, ispilu atzeko hutsunean kutxa bat aurkitu zuten. Giltzarekin kutxa ireki eta han zegoen lapikoa!

Ez zitzaien berezia iruditu, baina kontu handiz hartu eta motxilan sartu zuten.

Ispilua bere tokian jarri eta alde egin zuten isiltasun handiz. Lorategiko gordelekuan ezkutatu ziren berriro.

Arratsaldean, beste lehengusuek, jauregi ondoko plazan ari zirela, baloia bota zuten jauregiko lorategira. Aitzakia hartaz baliaturik, lorategian baloi bila sartu, Ane eta Beñat aurkitu eta denak ateratzea lortu zuten.

Behin etxean, ongi gorde zuten lapikoa eta, afaltzeko garaian, zera esan zioten gurasoei:

—Bihar guk prestatuko dizuegu bazkaria; zuek joan zaitezkete lasai hondartzara.

Gurasoei ongi iruditu zitzaenez, aukera zuten lapikoa erabiltzeko.

Hurrengo egunean garaiz jaiki ziren, azokara joan eta baserritarren barazki onenak erosteko. Gurasoak hondartzara joan zirenean, lapikoa atera, barazkiak ongi garbitu, behar bezala txikitu, lapikoan sartu, ur pixka bat, olioia eta gatza gehitu eta sutan jarri zuten egosten.

Noizean behin Anek probatu egiten zuen.

Halako batean esan zuen:

—Hau egina dago!

Bazkaltzeko garaian lapikoa mahaian jarri zuten.

Anek banatu zuen menestra plateretan eta denek esan zuten:

—Menestra hau oso ona dago!

Aneren izebak ez zuen lapikoa ezagutu eta esan zien:

—Nondik hartu duzue lapiko hau?

—Ezin dizugu esan, sekretua da, guri agure batek esan diguna. Lapiko honek janari oso onak prestatzen ditu.

Oporrak bukatuta, izebak esan zien:

—Eraman lapikoa Parisera, hemen ez dugu behar. Erabili zuen jatetxean.

Parisen, jatetxean, lapiko magikoa erabiltzen hasi ziren. Janari gozoak egiten zituztenez, jende asko joaten zen Miarritze jatetxera.

Beste jatetxetako sukaldariak ere joaten ziren jatera, eta txundituta geratzen ziren.

Ospe handia hartu zuen jatetxeak eta telebistan maiz ateratzen zuten.

Horrela, diru asko irabazi zuten eta etxe handi bat erosi ahal izan zuten.

Maren Iturbe

Txakurra

Nire etxean dago
kristoren txakurra,
jenio bizia ta
handia muturra.
Gorri-gorria dauka
txakurrak sudurra,
pattarra edan du ta
hori da atxurra!

Naia Orzaiz

Lagunak

Udara badoa
eta berekin txangoak.
Badator ikastola
eta gogo gutxikoak,
nekea eta etxeko lanak.
Baina lagunak
ondoan dituzula,
ez da hain gogorra.
Lagunak izatea bezalakorik
ez dago munduan.

Leire Olariaga



Olatz Aizpurua

Hamaiketakoaren misterioa

Bazen behin arratoi bat, Xapi izenekoa. Ikastolako gela batean bizi zen, bere gurasoak hil zirenetik. Xapi hamaiketakoak gordetzen ziren armairuaren atzean bizi zen. Nahiko alferra zenez, umeen hamaiketakoak lapurtzea bururatu zitzaion. Bazeramatzan egun batzuk lan horretan, baina Xapi oso argia zen, eta inork ez zuen ikusten. Andereñoa fotokopiak ateratzera joan zen goiz batean, Xapik aprobetxatu zuen umeen motxiletara joan, eta bi hamaiketako hartzeko. Jolas garaia iritsi zenean, Unaxi eta Eleneri hamaiketakoak falta zitzaizkien. Hurrengo egunean beste biri falta zitzaizkien, eta hurrengoan beste biri. Alainez andereñoari esatea pentsatu zuen:

—Andereño, gelako norbait hamaiketakok lapurtzen ari da.

—*Hamaiketakoaren misterioa*, izenburu polita ipuin bat idazteko —erantzun zuen andereñoak umoretsu—. Beno, nor dabil gelan hamaiketakoak lapurtzen? —galdetu zuen ondoren, serio-serio.

Gelako guztiak isil-isilik gelditu ziren. Xapi, bitartean, armairu atzetik dena entzuten ari zen.

—Zer egingo dugu? —galdetu zuen andereñoak.

—Kamera bat jar dezatela —esan zuen Ibaik.

—Asko balio du, ordea —erantzun zion Sarak—. Eta hamaiketakoak ekartzeari utziko bagenio?

Andereñoak pentsatu zuen egokiena tranpa bat jartzea izango zela eta, horretarako, Amaiak eman zion ideia:

—Plastikozko galleta bat jarriko dugu, andereño, barrutik tintaz beteta; ipuin batean irakurri nuen horrela lapurra harrapatzea lortu zutela denda batean.

Hurrengo egunean, jolas ordua bukatu ondoren, gelara igo, eta Amaiak segituan behatu zituen Ikernerren eskuak, berarengan zituen susmorik handienak-eta. Ondoren, Markelen eskuei erreparatu zien, beste behin ere ostu baitzuen Danelen konpasa; baina garbi-garbiak zeuden.

Egunak pasatzen ari ziren eta hamaiketakoak desagertzen jarraitzen zuten. Xapik lapurtzen jarraitzen zuen, eta gizentzen eta gizentzen hasi zen.

—Andereño, zergatik ez diogu sagar bati alde batetik pita ipintzen, eta beste aldetik argiari lotutako soka bat? —esan zion Amaiak etsi gabe.

—Ondo, Amaia, ez dakit lapurra harrapatuko dugun, baina zure intentzioak asko balio du —erantzun zion andereñoak.

Hala, hurrengo egunean gelara igo zirenean... Xapi arratoia gelan ikusi zuten; mantso zebilen, oso-oso gizona zegoen-eta. Xapi asko izutu zen hainbeste jende inguruan ikusita.

—Zergatik lapurtzen dituzu gure hamaiketakoak? —esan zion haserre Julenek.

—Bakarrik bizi naiz armairuaren atzean eta, zuen hamaiketako goxoak ikusita, pentsatu dut ez daukadala jan bila joan beharrik kalera eta, horrela, telebista gehiago ikus dezakedala, baita lo gehiago egin ere.

Andrea oso bihotz oneko neska zen, eta hauxe esan zion Xapiri:

—Zergatik ez zara etortzen gurekin ikastera? Gelan gauza asko ikasten ditugu, eta soinketa egitea ere komeni zaizu. Jana denon artean emango dizugu; baina, horretarako, lana egin beharko duzu; zeren, horrela segitzen baduzu, laster lehertu egingo zara.

—Baiiii! —esan zuen Anderrek, poz-pezik—. Zu izango zara gure gelako maskota! Ikusiko duzu ze ondo pasatuko duzun!

Andereñoak beste mahai bat prestatu zuen gelan, eta hurrengo egunean zortzi eta erditarako gelan zegoen Xapi.

—A, ze zortea izan dudan —pentsatu zuen berekiko arratoiak—. Neska-mutil jator hauen ondoan egongo naiz berek nahi duten arte.

Amaia Rodriguez

Josuren abentura

Behin batean bazen Josu izeneko mutil bat. Down sindromea zuen. Futbol talde batean jokatzen zuen, Beti Berdinak taldean, eta ligako finalera iritsi ziren, oso onak zirelako.

Finalean denak oso urduri zeuden, eta Josu, bat-batean, zorabiatu egin zen.

—Zer gertatu zaio? —esan zuen aurrelari batek.

—Ezingo dugu partida bukatu! —esan zuen entrenatzaileak.

Momentu hartan Josuk ez zuen ezer entzuten. Bat-batean bere burua Indiara zihoan hegazkin batean ikusi zuen, aurrealdean zegoen eserita, eta lo, gaua zelako. Handik lau ordura soinu arraro bat entzun zuten hegazkinean zihoazenez. Jendea oso urduri jarri zen: batzuk eserlekuetatik altxatzen hasi ziren, beste batzuk garrasika... Josu pilotuarengana hurbildu zen eta galdetu zion:

—Zer gertatu da?

—Motor batek huts egin digu!

—Hegan egitea lortuko al dugu?

—Ez dut uste!

Hegazkina beherantz erortzen hasi zen, eta Indiako Ozeanoko irla desertu baten aurka egin zuen talka.

Denak airean atera ziren. Segituan, zera entzun zen:

—Grrrrrrrrrr!

—Zer da hori? —galdetu zuen Josuk.

—Uste dut animalia bat dela —esan zuen zooan lan egin eta Jone izena zuen neska batek.

Bat-batean, tigre bat atera zen sasi artetik, eta denak korrika irten ziren, Josu eta Jone izan ezik.

—Tigrea gaixorik dago —esan zuen Jonek.

—Lagunduko al diogu? —galdetu zuen Josuk.

—Ondo da.

Tigreak bidea argitu zien Josuri eta Joneri. Bidean zihoazenean, Josu zuhaitz bati begira gelditu zen, oso arraroa zelako, eta begiak bidean jarri zituenean, tigrea eta Jone

ez zeuden. Josu galdu egin zen. Jone eta tigrea aurrerantz joan ziren tigrea bizi zen tokiraino, eta han bere kumeak erakutsi zizkion: Mali, Meng, Juli eta Hassan.

Irlaren erdirantz zihoanean, Josuk txabola bat ikusi zuen hutsik, eta barrura sartu zen. Ez zekien zer egin eta han geratu zen egun osoan. Hurrengo egunean hondartza alderantz joan zen, eta ezin izan zuen uretara sartu, marrazoak zeudelako. Josuk ez zekien zer egin, eta jendearen bila hasi zen. Bi ordu igaro ziren eta ez zuen inor aurkitu, zuhaitzak eta sasiak besterik ez.

Bien bitartean, Jone eta tigrea Josuren bila hasi ziren. Ez zuten aurkitzen, Josurengandik oso urrun zeudelako; horregatik, berriro tigrea bizi zen lekura itzultzea erabaki zuten.

Josuk makila luze bat aurkitu eta SOS idatzi zuen hondarretan. Egunak eta egunak igaro ziren, eta inork ez zuen ikusi. Baina arratsalde hartan erreskate helikoptero bat agertu zen, eta Josuk idatzitako mezua ikusi zuen. Irlara jaitsi, eta helikopteroan zeuden pertsonak jende guztia aurkitu zuten, Jone ere bai. Tigrea, berriz, albaitari batengana eramán zuten.

Beranduago, Indiako herri txiki batera iritsi ziren. Han Josuk hiru ume aurkitu zituen, eta haiekin futboleak jolasten hasi zen. Umeeak Juang, Natila eta Jongai izena zuten. Onena Josu zen, eta bi talde egin zituzten:

Josu eta Juang, eta Natila eta Jongai. Bi minutu pasatu ziren, eta Josuk gola sartu zuen.

Momentu hartan, Josuk entzun zuen telebistan:

—Gooooooooooooooooo! BETI BERDINAK TALDEAK FINALA IRABAZI DU!

Josu erietxe bateko logela batean esnatu zen.

—Non nago? —galdetu zuen.

—Erietxean —erantzun zion medikuak.

—Zergaitik nago hemen? —galdetu zuen Josuk aho zabalik.

—Konortea galdu duzulako futbol zelaian.

Bere taldeko lagunak joan ziren Josu bisitatzera, eta hurrengo egunean Josu ospitaleetik atera zuten. Garaipena ospatu zuten bere etxean, eta handik aurrera denak zorionsu bizi izan ziren lagun artean eta familiarekin.


Malen Albeniz

Denbora

Sendatzen ditu zauriak,
goxatzen haserreak,
leuntzen ditu tontorrak,
ajutzen paisaiak,
aldatzen ditu modak,
eta makurtzen gizakiak,
posible egiten ditu amaierak
eta sorrarazi hasierak.

Batzuentzat urrearen balioa du denborak,
besteentzat, zama esan nahi du.

Sara Mujika



Olatz Aizpurua

Siglak

TAO

Estropalari kalean
gorrotoak ezin du aparkatu.

ONCE

Ander nire auzokide itsuak
askotan ikusten ditu
nire barneko tristurak eta pozak.

RAM

Amonaren etxeko ordenagailuak alzheimerra du
memoria galdu du
eta gurpildun aulkian ateratzen dugu paseatzera.

EITB

Euskal Telebistako txoria
Konkis-erako hautatu dute,
kapitain gisa.

BEZ

Garaiera handiko mendiak eskalatzea atsegin du
zerga harroak.

Jugatz Aduriz

Udaran moilan

Orio arrantzale herri bat da. Itsasoa dauka eta, itsasoarekin batera, moila dauka. Itsasoa urdin-urdina da eta olatu izugarriak egiten ditu. Moilak, berriz, zubia dauka izkin batean. Oso polita da eta baranda potente eta sendoa da.

Orion udaran zubitik salto egiteko ohitura dago aspalditik. *Paliyo* botatzea zuzen botatzea da hori errazenetako bat da. Ohitura zailagoak ere badaude: adibidez, *Angel* izenekoak. Eskuak zabaldu, hankak pega-pega eginda jarri eta uretara iritsi baino pixka bat lehenago eskuak ireki eta murgil egitea da. Horri *Aingerua* deritzo.

Oriokoa kostaldeko beste edozein herriko moilak bezalakoa da. Baina moilaren harria oso berezia dela esaten dute, eta oso zaharra. Baina ez moilaren harria bakarrik, eskailerak ere bere berezitasuna dauka, eskaileraren harriak garrantzia handia dauka. Oso zaharra da eta harriaren minerala oso berezia; ia mundu osoan ez dagoen minerala da. Oso-oso berezia.

Moilan haur eta gazteek edozein adinetako jendeari dirua eskatzen diote. Orokorrean, xentimoak eta euroak botatzen dituzte. Gazteak ziztu bizian uretan murgildu eta ur azpitik jaso egiten dituzte. Uretara ailegatu baino lehen eta airean hartzen badute, meritu gehiago dauka.

11 urte ditu Marenek. Oso neska jatorra da eta moilatik salto egitea asko gustatzen zaio. Bere amarekin beti haserre dago, ez diolako uzten moilatik salto egiten. Marenek bere burua gai ikusten du salto egiteko, *Angel* eta *Paliyo*. Baina bere amak ez dio uzten. Egun batean zubira joan, eskailerak igo eta tipi-tapa barandara joan da.

Pasatzen hasterakoan, bere lagun batek esan dio:

—Bat, bi eta hiru!

Baina salto egitera doala, ama kaletik datorrela ikusi du eta, korrika, toaletara joan da. *Uf! A, zer eskapada!* Marene etxera bueltatu da, amak 20:00etarako etxean egoteko esan dio-eta. Etxera iritsi eta amak esan dio:

—Ai, Marene, Marene! Badakit zubitik salto egin nahian zenbiltzala. Istorio txiki bat kontatu behar dizut...

Aspaldi-aspaldi, moilan bainatzera joan ziren gazte batzuk: Gorka, Ana, Antton, Johanes eta Alejandra. Arropa kentzen hasi ziren eta bainu-jantzietan salto egitera joan ziren. Gorkak salto egin eta Iuju! esan zuen. Aitona zahar bat pasatzen ari zela, Anak dirua botatzeko esan zion. Anak salto egin eta aitona 10 zentimo bota zituen. Gorka eta Ana ziztu bizian murgildu ziren uretara. Gorkari alde egin zion txanponak, baina Ana ez zen errenditu eta hartu egin zuen. Uretatik atera zenean, Gorkak galdetu zion:

—Hi, Ana, hartu al den txanpona? Nik ezin izan dinat hartu!

—Bai! Lasai, Gorka!

Orduan, aitona joan egin zen. Gorka eta Ana eskaileretatik igotzen hasi ziren eta beste lagunak —Antton, Johannes eta Alejandra— itxoiten ari ziren. Guztiak batera, zubira joan ziren. Gorkak salto egin zuen eta plost! entzun zen. Ondoren, Alejandrak salto egiterakoan, arrain guztiak uxatu zituen eta denak barrezka hasi ziren. Segidan, Johannesek eta Anttonek egin zuten salto. Ana bakarrik geratu zen eta, salto egin zuenean, uretan murgildu eta bi hankak lurraren kontra jo eta txingurritu egin zitzaizkion. Anbulantzia etorri zen eta sendagilearengana eramane zuten. Odol asko galtzen ari zen eta esan zioten ezingo zuela gehiago ibili.

Amak orduan honako hau esan dio Mareneri:

—Anari dirua bota zion aitona zure birraitona zen, eta bizitza osoan geratu zitzaion horren pena. Espero dut, Marene, hau entzun eta gero, zubitik salto egiteko gogorik ez izatea gehiago.

Marenek, begiak malkoz beterik, erantzun dio:

—Bai, ama, sinesten dizut eta ez dut berriro zubitik salto egingo—. Eta besarkada handi-handi bat eman dio.

Nahia Uranga

Aitona nekaezina

Nire aitona, gaur egun, ez da igerian nekatzen.

Txikitan bere aitak txalupa zahar bat zuen Orioko hondartzaren ondoan. Aitonak egunero erabiltzen zuen, bere lagun batekin. Itsasora irten eta han ibiltzen ziren. Horrenbeste ordu pasa ondoren, buzeatzen ere hasi ziren. Karramarro erraldoiak harapatzen zituzten. Gero merkatuan saldu eta diru pixka bat lortzen zuten. Bainujantzi berriak erosteko erabiltzen zuten diru hori; beti horiak erosten zituzten, oriotar petoak zirelako. Aitonak esaten du udarako egun batean 10 ordu igerian pasatzeko gai zela. Horregatik da gaur egun horren igerilari ona.

Amonak ez joateko esaten zion: zaharra zela eta, halako egun batean, bihotzekoa emango ziola. Aitonak, berriz, berak indarra soberan zuela esaten zuen. Hori erakusteko, Donostiatik Oriora joan eta etorri egingo zuela esan zuen; baina, horretarako, aurrena forman jarri behar zuela. Hasieran, Orioko hondartzan ibiltzen zen; geroago, Oriotik Moilarrira.

Aitonak bere burua prest ikusten zuen.

Aitona goizeko 08:30ean igerian atera zen Donostia aldera. Ondo zihoan; baina, bueltakoan, bihotzekoa eman zion. Eskerrak handik gertu itsasontzi bat zegoela. Hasieran arrain handi bat zela pentsatu zuten; gerturatzean, gizaki bat zela ikusi zuten. Salabardo erraldoi baten bidez hartu zuten. Azkar-azkar arropak aldatu eta ohean sartu zuten. Handik bi egunera aitona esnatu zen. Ordainetan arrantzan lagundu zien itsasontzikoei. Lan horretara ohituta zegoenez, bere lana ondo bete zuen. Handik sei egunera etxera bueltatu ziren. Aitonari, egindako lanaren ordainetan, 4 antxoa eder oparitu zizkioten. Aitona etxera bueltatutakoan, amona eta lagunak oso kezkatuta zeuden. Aitonak istorio osoa kontatu zien eta harrituta gelditu ziren.

Handik aurrera aitona igerian segitzen zuen baina askoz ere gutxiago, eta halako batean bere ordua iritsi zen.

Antton Iturain

Amatxo

Amatxo jaiotzetik zaitut bihotzean.
Amatxo, zaintzen nauzu gaixo nagoenean,
beti zaude hor mina hartzen dudanean
eta kontsolatzen nauzu negar egitean.
Munduko amarik onena zara, amatxo.
Nik beti izan zaitut gogoko
zaudenean haserre ala goxo-goxo.
Nire amatxo, nire damatxo,
ez nazazu sekulan bakarrik utzi,
beti ondoan nahi zaitut.
Behar zaitut, amatxo!
Maite zaitut, amatxo!

Ekhi Gozategi

Bihotzeko leihoa

Leiho isilari galdetzen diot nik:
zer egingo nuke nik zu gabe?
Ezin zaitut zeharkatu,
baina halako babesa ematen didazu!

Zu, nire txoria bezalakoa zara,
geldi-geldi egoten zara
eta arreta ipinita guztiari.

Nire irribarreak islatzen dituzu
zuk ere irribarre egiten duzun bitartean,
alai, garbi, garden.
eta guk zuri jaramonik egin gabe,
zarelaiko apal eta ikusiezin,
baina jakin ezazu
oso ondo betetzen duzula zure zeregin.

Andrea Agudo

Bihotza

Odola bezain gorria da,
horrelakoxea da nire bihotza.

Sentimendu asko ditut nire bihotzean:
beldurra, konfiantza...
hantxe ibiltzen dira,
begira, poza eta zalantza,
han dabil bestea...
Kaixo, esperantza!
Hor tartetik ibiliko dira,
besteen antza.

Nire bihotzak
taupada handiak dituenean,
Teide sumendia erupzioan dagoela
ematen du.

Horrelakoxea da nire bihotza:
gorria, sentimenduz betea,
eta Teide sumendiaren antzekoa.

Eider Urain

Zu

Zu ikustean
oso zoriontsu nago.
Zu zara nire marinel
eta ni zure itsaso.
Ni zure zeru,
eta zu nire laino.

Biok batera
izango gara zoriontsu.
Zuregatik pasako nituzke
milaka arrisku.
Eta zuregatik egingo nuke
harria hauts bihurtu.

Zu lorea bezain polita zara
Zu zara nire ametsetako printzea.
Zurekin egingo nituzke milaka gauza,
milaka abentura, milaka erokeria.
Zu zara mila gauza egiten dituzuna,
aurpegiko euria kentzen didazuna.

Eider Peiro



Joxe Mari Unanue

Hobby-ak berreskuratzen

Baziren behin, Michael eta Franklin izeneko bi gizon, gaztetan lapur izandakoak. Biek batera Amerikako lapurren artean historia egin zuten eta diru asko lortu zuten, nahiz eta gaur egun biak ekonomikoki egoera berdinean ez egon.

Alde batetik Michael, gaztetan banku lapur arrakastatsua izandakoa, nahiz eta gaur egun bi seme-alabako familia baten ez hain aita ona izan. Dirua sobran eduki izan du, eta ez du etsairik, denekin bukatu zuelako. Franklin, berriz, umetatik kontrabandista izan zen eta, gizontzen ari zen bezala, lapurreta munduan sartu zen. Michaelen diru-iturri beretik atera izan ohi zuen dirua; baina, zorrak zituela-eta, ez zitzaion gehiegi geratzen egunerokotasunean gastatzeko. Bakarrik bizi zen, emaztearekin banandu zelako; baina, zorionez, lan bat zuen, Simeon izeneko baten auto enpresan.

Nahiz eta gaztetan lagunak izan, bakoitzak bere bidetik segi zuen eta, gaur egun, ez zuten elkarren berri. Atzo, ordea, berriz topatu zuten elkar.

Michaelen auto enpresatik Franklinek auto bat lapurtu zuen, Simeonek agindu bezala, eta, etxerako bidean zihoala, atzeko eserlekuetatik gizon bat zutitu zen eta pistola batekin mehatxu egin zion Franklini. Franklinek, ordea, ispilutik aurpegia ikusi zion, eta bere lagun zaharra zela konturatu zen. Lasaiago hitz egitera joatea pentsatu zuten eta, pintxopote zenez, Salatxo tabernara joan ziren.

Han zeudela, telebistan, albiste batek zioen aspaldi banketxe baten lapurreta izan zenean, ondoko bitxi-dendako kamera batek lapurren aurpegiak grabatu zituela. Ondorioz, astebetara inguruko polizia guztiak lapurren bila hasiko zirela zioen. Banketxearen lapurrak, Michael eta Franklin ziren. Orduan pentsatu zuten bitxi-denda lapurtu eta kameraren grabazioak suntsituko zituztela. Baina lapurreta hori planifikatu beharra zegoen.

Lester izeneko informatikari bat kontratatu zuten. Hark bitxi-dendako alarma desaktibatu behar zuen ordenagailutik, eta aire hodiak identifikatu, aire girotuko sistema ere baliagarria izan zitekeelako.

Dena planeatu zuten: Lesterrek alarmak desaktibatu behar zituen helikoptero batetik; helikopteroa bitxi-dendaren gainean kokatu behar zen eta gas lokartzaile bat sartu behar zuten bitxi-dendaren teilatuko aire girotuaren sisteman. Behin bertan sartuta, bitxi-dendako jendea lokartu egingo zen, eta Michael eta Franklinek helikopterotik salto egingo zuten soka batzuk erabiliz. Bitxiak eta grabazioak hartu eta alde egin behar zuten; baina, horretarako, ibilgailu azkar bat behar zuten: *Lamborghini veneno* izeneko auto bat aukeratu zuten.

Dena bere lekuan zegoen eta itxura ona zuen aspaldiko *hobby*-arekin jarraitzeak. Michaelek diru asko zuen, eta bera arduratu zen helikopteroa eta *Lamborghini*

erosteaz. Franklinek, berriz, gas lokartzailearen enpresa bateko kamioi bat lapurtu zuen, eta Lesterrek bitxi-dendako segurtasun sistemak hackeatu zituen.

Lapurreta hurrengo egunean egitea pentsatu zuten.

Hurrengo eguna iritsi zen. Berandu jaiki ziren ohetik, ondo bazkaldu zuten Salatxo tabernan, eta lanari ekin zioten: hirurak helikopteroan sartu ziren, sokak, gas latak, eta armak hartuta. Lamborghini bitxi-dendaren aurrean aparkatuta utzi zuten. Bitxi-denda aldera abiatu ziren eta, behin han zeudela, Lesterrek segurtasun sistema blokeatu zuen, Franklinek gasa sartu zuen sabaiko aire girotuaren sistemara eta barruko jende guztia lokartu zen.

Orduan, Lesterrek helikopteroaren kontrola hartu zuen eta Franklin eta Michael soketatik jaitsi ziren bitxi-dendara. Sartu bezain laster, bitrina guztiak hautsi, bitxiak hartu, eta grabazioen bila joan ziren bulegora; aurkitu zituztenean, alde egin zuten handik. Autoan sartu ziren. Michael gidari zihoan eta Franklin, eskuetan metraileta hartuta, haren ondoan eseri zen. Ziztu bizian atera ziren, polizia guztia beren atzetik baitzuten, nahiz eta tiroek beren autoari ezer ez egin, blindatua baitzen eta gurpilak balen kontrakoak baitziren.

Poliziak blokeatuta zituen errepide asko eta, ondorioz, zaila izango zen ihes egitea. Orduan, autopistan zihoazela, aurrean blokeo bat ikusi zuten, eta atzetik polizia gehiago zetorren segika. Bat-batean Lester atera zen bere helikopteroarekin eta bi soka bota zituen lurrera. Gure bi lapurrak, grabazioak eta bitxiak hartuta, soketatik igo ziren polizia guztia behean utziz.

Eta horrela alde egin zuten, grabazioei sua eman eta sano-sano etxera iritsi ziren, bakoitzak irabazien herena hartuta, eta beren eguneroko bizitzarekin jarraitu zuten. Hori bai, lapurren historian kapitulu berria idatzita!

Borja Esnal

Amona Xexili

Peru naiz, 10 urteko mutiko bihurri bat. Geldirik egotea asko kostatzen zait; urduri xamarra naiz baina ez mutil txarra.

Seme bakarra naiz. Etxean gurasoekin eta aitona Martinekin bizi naiz. Betidanik ezagutu dut aitona gure etxean. Beti entzun dut oso gazterik alargundu zela eta, gurasoak ezkondu zirenean, aitonarekin jarri zirela bizitzen. Aitonak 73 urte ditu eta gizon alaia eta umoretsua da; umeak asko gustatzen zaizkio eta ni asko maite nau.

Beraz, egunero-egunero aitona eta biok hondartzara joaten gara buelta bat ematera. Beti zain egoten da ni noiz azalduko; batzuetan ni bizikletan joaten naiz eta beste batzuetan, berriz, berarekin oinez joaten naiz.

Hondartzara iristean, han dagoen parkeko aulki batean eseri eta beti ipuin bat edo pasarte bat kontatzen hasten da gure aitona. Egun batean, esan nion:

—Aitona, nola hil zen amona Xexili? Zer gertatu zitzaion?

Aitona pentsakor geratu zen eta esan zidan:

—Begira, Peru! Nik asko maite nuen amona, baina gaixotasun larri baten eraginez hil zen —esan zidan.

—Aitona, eta noiz hil zen?

—Zu jaio baino bost hilabete lehenago. Amonak alzheimer izeneko gaixotasun bat zeukan eta pixkanaka-pixkanaka gauzak ahaztu egiten zitzaizkion eta bere munduan bizi zen. Azkenean, gu ere ez gintuen ezagutzen. Amona Xexili emakume langile eta oso txukuna zen. Askok gustatzen zitzaion baratzean lan egitea. Sukaldean oso ona zen eta josten ere, abila. Baina gaixotasunak ezer ez egiteraino eraman zuen —erantzun zuen aitona hasperen eginez, begiak malkoz beterik zituela.

—Lasai, aitona, ez jarri triste —esan nion.

Aitona lepotik heldu zidan eta istorioa kontatzen jarraitu zuen:

—Zure amak eta aitak asko lagundu zioten amonari. Berek dutxatu, jantzi, janaria eman... baina, azkenik, bere gaixotasuna aurrera zihoala, ezin zen gehiago ezer egin eta Zaharren Egoitza batera eramatea erabaki genuen. Oso gogorra egin zitzaigun erabaki hura hartzea baina lan handia zen amona etxean edukitzea. Ez zuen denbora asko iraun han; hiru astetara oso gaizki jarri eta hil egin zen.

Ni adi-adi nengoen aitonaren hitzak entzuten eta, amaitu zuenean, esan nion:

—Eskerrik asko, aitona, amonaren istorio hau kontatzeagatik. Beti izan dut jakin-mina eta orain gehiago dakit hari buruz.

—Begira, Peru, bizitza horrelakoxea da —erantzun zidan aitonak.

Orduan, aitona eta biok etxera abiatu ginen. Etxera iritsi ginenean, ama han zegoen afaria prestatzen eta esan egin nion aitonak amonaren istorioa kontatu zidala.

Ama oso pozik jarri zen eta esan zidan:

—Peru, nahi al dituzu amonaren argazki batzuk ikusi?

—Bai, ama, asko gustatuko litzaidake.

Ama ganbarara joan eta hango armairuan zeuden bi kutxa atera eta salan ama, aitona eta hirurok amonaren argazkiak ikusten hasi ginen. Argazki asko zeuden aitona eta amonarenak: beren ezkontza egunean, baserriko lanetan, senideekin ospakizunetan, nire ama jaio zenekoan, lehen jaunartzekoa, ezkontza...

Ze pozik nengoen argazki haiei begira eta amak eta aitonak kontatzen zizkidaten pasarteekin. Zerbait gehiago banekien beren gaztetako bizitzaz.

Aitonari momentu batzuetan malko bat edo beste ateratzen zitzaion amonarekin gogoratzen zenean. Berarentzat amona oso garrantzitsua izan zen bizitzako une askotan. Orduan, nik aitona horrela ikusi eta, hunkituta, besarkada handi bat eman nion.

Handik pixka batera, aitona lasaiago zegoenean, dena jaso genuen bere tokian; ganbarara igo eta afaltzera joan ginen. Afaldu ostean aitonari eta gurasoei musu eman eta irribarre goxo batekin ohera joan nintzen.

Gau hartan lotan ari nintzela, gauza bitxi bat gertatu zitzaidan: amonarekin eta aitonarekin egin nuen amets eta ni haiekin jolasten ari nintzela poz-pezik. Amets hartan aitonak deskribatutako nire amona ateratzen zen bere irribarre alaiarekin.

Aratz Oliden

Bizitzak erakusten diguna

Eguneroko honen bitartez, nire gertakariak, kezkak, sentimenduak... azaldu nahi ditut. Ni psikologiako hirugarren urtea egiten ari naizen neska bat naiz. Egunerokoaren kontu hau unibertsitatean agindu diguten lan batean oinarrituta dago. Esan digute halako tresnak oso baliagarriak izan daitezkeela autokonstrukzio moduan. Buruan duguna idazten badugu, hori analizatzea eta konpontzea errazagoa izango zaigula. Beraz, lantxo hau egitera bultzatu gaituzte. Hauxe da, beraz, eguneroko hau idazten hastearen zergatia.

Astebete eskas dudanez lan hau burutzeko, hiru zati nabarmenetan egingo dut: lehendabizi, txikitako gertakari bat kontatuko dut. Ondoren, nire nerabegaroko bat eta, azkenik, bukaera emango diot lan honi, orain ditudan sentimenduei erreparatzen.

Egunerokoari hasiera emateko, bost urte nituenean lagun batekin gertatzen zitzaidana kontatuko dut. Adin hartan ez nintzen ezertaz konturatu; baina orain, nire bizitzaren hausnarketa egiterakoan, behin eta berriz etortzen zait burura. Gogoratzen naiz askotan egoten nintzela bizilagun baten bilobarekin. Haren izena Nora zen. Noraren gurasoak bananduta zeuden. Asteazkenean zehar amarekin egoten zen eta asteburuetan aitarekin. Amak arratsaldetan lana zuenez, aste tarteko arratsaldeak aitona-amonekin igarotzen zituen, amaren gurasoekin.

Nora ni baino urtebete zaharragoa zen. Hala ere, jolasteko proposamenak neuk egiten nituen beti. Edozein jokotan neuk jartzen nituen arauak. Noiz bukatzen zen jokoa neuk esaten nuen... Garai hartan ez zitzaidan arraroa iruditzen. Nire ustez, isila zen, lotsatia... Denboraren poderioz, beste modu batean ikusten dut gertatzen zena. Harrigarria iruditzen zait Norak aitona-amonei inoiz kontra ez egitea, beti konforme egotea. Ez hori bakarrik, zerbait galdetzen ziotenean, entzun nahi zutena erantzuten zien. Ez zuen pertsona bat ematen, errobota baizik. Nire irudipenez, ez zuen pentsatzen, ez zuen sentitzen. Bere pertsonalitatea ezabatuta zegoen. Bere barrua hilda zegoela konturatu naiz.

Bestalde, amorru gehien ematen zaidana zera da, inguruko jendearen komentarioak: *Aingeru bat da!, Bai neska zintzoa!, Nik horrelako bat nahiko nuke...* Ikastolako andereñoak ere bai: *Besteak ere horrela portatuz gero!* Jendea ez zen konturatzen haren sentimenduez, zenbat sufritzen zuen, zeintzuk ziren bere beldurrak.

Nola zen posible hori, inor ez konturatzea gaixo zegoela? Gaur egun, Nora burura etortzen zaidanean, pena sentitzen dut. Gainera, zenbait momentutan, errudun sentitzen naiz. Haren berri jakitea gustatuko litzaidake, zeren eta ia ziur nago psikologo baten laguntza behar duela.

Honekin ondorioztatu nahi dudana izan da ez zaiela arazoei bizkarra eman behar,

baizik-eta aurrera atera behar direla, Ez bagaude ados, argudiatuz, hitz eginda... konpon ditzakegu; baina inolaz ere ez ezer esan gabe edota guztiari baiezkoa erantzunez.

Aurreko ideiarekin jarraituz, arazoaren bila joatea esaten dudanean, ez dut esaten haserreak bilatzera joan behar dugunik, baina bai eztabaidak. Eztabaidetatik ondorio anitz atera dezakegu; gure pentsaera, iritzia, azalaraztea, argudiatzea, besteak esaten duena, pentsatzen duena, sentitzen duena, ulertzea... laburbilduz, enpatia erabiltzea.

Orain, hurrengo zatiarekin hasiko naiz. 16 urte bete nitueneko eguna dut buruan eta, horregatik, horixe da kontatuko dudana. Egun hori oso berezia izan zen, nire gurasoek festa zoragarri bat antolatu baitzidaten.

Esnatu nintzenean, ez zegoen inor etxean. Horregatik, ondorioztatu nuen nire festa prestatzen ari zirela. Gosaria mahai gainean utzita zegoen, ondoan paper bat zuelarik. Paper hartan amaren mezu bat zegoen: *Lanetik deitu didate arazo bat egon delako. Segituan naiz etxean. Zorionak eta muxu anitz!*

Nire gurasoak bananduta daude. Amarekin bizi nintzen eta aita oporretan soilik ikusten nuen. Egunerok hitz egiten nuen berarekin; baina, batez ere, asteburuetan, denbora gehiago nuelako horretarako. Ordu finkoa geneukan, hamarrak baino lehen. Nire urtebetetzean, berriz, hamaikak ziren eta oraindik ez zidan deitu.

Ni urduritzen hasia nengoen ordurako. Horrez gain, ez nuen jaso nire lagunak *whatsapp*ik, ez mezurik eta ez deirik. Nire barruan beren aurkako izugarritzko haserrea neukan. Ederra eguna izan behar nuen martxa horretan jarraitzekotan!

Oso luzea egiten ari zitzaidan itzarote momentu hura. Ez nekien zer egin, zer pentsatu... Bat-batean aitaren dei bat jaso nuen. Zoriondu egin gabe, esan zidan bere etxera joateko, ama gaixorik zegoelako. Horixe egin nuen: korrika batean jantzi eta aitaren etxera abiatu nintzen.

Baina ez duzue imajinatuko zer gertatu zen han: bai aita, bai ama, bai lagunak... guztiak hantxe zeuden! Guztiak ondo! Inolako ezbeharririk gabe. Huraxe poza hartu nuena dena ondo zegoela jakitean! Gainera, bost urte ziren nire urtebetetzea ez nuela ospatzen aita eta amarekin batera...

Hau izan da nire 'Eguneroko Express'-aren bigarren zatia. Bertatik atera ditudan baloreak pazientzia eta konfiantza ez galtzea izan dira. Horretaz aparte, konturatu naiz bai nire familiak eta bai nire lagunak benetan maite nautela eta hori bai pozgarria dela. Horrela, ondo sentitzen ez naizenean edo pertsonaren batek mina egiten didanean, inportantzia gutxiago ematen diot; izan ere, benetan maite nautenak beti daude prest niri laguntzeko eta indarra emateko aurrera begiratzeko.

Hirugarren atalarekin hasiko naiz jarraian. Edo honen guztiaren konklusioarekin. Gaur egun, ikasle pisu batean bizi naiz. Guztira lau gara, hiru neska eta mutil bat. Ni, hasieran esan dudana bezala, psikologia ikasten ari naiz, baina nire pisukideak

medikuntza egiten ari dira. Haiek ikasten dute gaixotasun fisikoak sendatzen eta ni, berriz, barrukoak. Gainera, konklusio batera heldu gara: biak direla ezinbestekoak eta elkar errespetatu behar dugula. Zelako taldea!

Gurasoak asteburuetan ikusten ditut, zerbait hartzeko geratzen garelako. Beren banaketa jada gainditu dut. Eta uste dut beren arteko harremanak hobeto daudela. Izan ere, banandu zirenean, oso gutxitan elkartzen ginen hirurak. Gaur egun, berriz, noiz-behinka batera egoten gara. Konturatu naiz bakoitzak lortu duela bere bizitzaren oreka. Horrekin konklusio batera heldu naiz: hasieran ez nien barkatzen separatzea; baina orain, onartzeaz gain, pozik nago. Uste dut ondo egin zutela, zeren eta denok merezi dugu zoriontsu izatea eta bigarren oportunitate bat.

Beraz, lanaren konklusioarekin hasiko naiz. Zenbait balore atera ditut hemendik. Nire eguneroko bizitzan aplikatu beharko ditudanak, autokonstrukzio moduan balioko didatenak.

Lehenengo ikasi dudana izan da ez diegula arazoei bizkarra eman behar, baizik eta aurrera atera behar ditugula, horretarako zenbait metodo erabiliz: argudiatu, hitz egin... Horrela, edozein arazo konpon dezakegu, baina inolaz ere ez ezer esan gabe edota guztiari baiezkoa erantzunez.

Ondorengo balorea, enpatia erabiltzea da. Hau da, ez bagaude bestearekin ados, ahalegin txiki bat egin beharko dugu bera ulertzen, pentsatzen duenari eta sentitzen duenari erreparatuz.

Bigarren istoriorekin atera dudana izan da pazientzia landu behar dudala, alde batetik. Ez naiz hain odolberoa izan behar, baizik eta dena pazientzia gehiagorekin landu.

Bestalde, mesfidantza landu beharko nuke. Zerbait uste dudanean ez dagoela ondo, edota denboraz kanpo dagoela edo mugituta... pentsatzen dut zerbait gertatu dela. Beraz, horixe landu beharko dut hemendik aurrera.

Gainera, lehen esan dudana bezala, konturatu naiz ze garrantzitsua den lehendabizi sentitzea zer nahi dugun, eta, hori jakinda, beldurrik gabe egin. Beraz, sentimenduei erreparatzea ezinbestekoa da. Gainera, zenbait kasutan hanka sartuko dudala badakit; baina beti egongo da bigarren aukera bat gauzak konpontzeko. Beraz, kulpa gainetik kentzea ere garrantzitsua da.

Bukatzeko, egunerokoaren erabilpenaren inguruan hitz egin nahi dut. Uste dut oso baliagarria izan zaidala, irakasleak esan zuen bezala. Guztiei gomendatzen diet metodologia hau martxan jartzea. Ni, behintzat, idazten jarraitzeko asmotan nabil.

Ane Izagirre

Eraztunen Jauna

—New Yorkeko polizia, bai esan?

—Kaixo! Central Park iparraldean neska baten gorpua aurkitu dut —esan zuen andre batek, beldurtuta.

—Eskerrik asko abisatzeagatik. Oraintxe goaz —telefonoa eseki zuen Katek—. Mutilak, hilketa bat daukagu.

Kate New Yorkeko polizia burua zen, 30 urteko neska gaztea. Polizia taldea beste bi mutilek osatzen zuten: Brian eta Scott. Hirurak batera bikainak ziren, hiltzaileak harapatzen onenak, justizia zen beti bilatzen zutena.

Hirurak, forentsearekin batera, Central Parkera abiatu ziren, hilketa gertatu zen lekurantz. Han zegoen deia egin zuen emakumea. Txakurra paseatzera atera zela igande goizero bezala, eta hantxe aurkitu zuela gorpua. Katek emakumeari etxera joateko esan zion, hura ikustea ez baitzen atsegina.

Gorpua aztertzen hasi ziren. 25 bat urteko neska eder bat zen. Ilehoria, azalez zuria, eta begi berdeak zituen. Gorpua zuhaitz baten azpian zegoen, etzanda, eta eskuak bularrean, bihotzaren gainean. Eskubiko eskuaren laugarren hatza moztua zeukan. Bularrean tiro batez hil zen. Biluzik zegoen, arropa guztiak kenduta eta bere ondoan botata zeuden. Forentseak larunbat gauerditik igande goizeko ordu bietara kokatzen zuen hilketa, baina laborategian sakonago aztertu arte ez zuela zehazki jakingo esan zuen. Laborategian aztertu beharreko gehiago ere bazituen, ea drogatuta zegoen edota bortxatu zuten, adibidez. Hango lana amaitu zen, gorpuaren eta inguruaren ehunka argazki zituzten; beraz, gorpua laborategira eraman eta komisariara joan ziren.

Komisarian arbel garden bat zuten, bertan kasuari buruzko informazio guztia idatzi eta argazkiak itsasteko. Argazkiak errebisatzen hasi zen Kate.

—Mutilak, ez al zaizue ezaguna egiten biktima hiltzeko modua?

—Bai. Aurreko kasuaz ari zara, ez? —esan zuen Scottek.

—Biktimak Alice izena zuen, gogoratzen naiz. Leku berean aurkitu genuen gorpua, postura berdinean —erantzun zion Brianek.

—Arrazoi. Neska hura drogatu, bortxatu eta hil egin zuten, bularrean tiro batez, oraingo biktima bezalaxe. Apustu egingo nuke, aurkitu berri dugun neska ere drogatu eta bortxatu egin zutela —esan zuen Katek konfiantza handiz.

Komisariako telefonoak jo zuen. Katek hartu zuen deia eta irribarre bat atera zitzaion hitz egiten zuen bitartean.

—Forentseak deitu du. Biktimak Diana Rose izena zuen. Igandeko 01:00ak aldera hil zutela dio eta, nik esan bezala, drogratu eta bortxatu egin zuten. Behatza hil ondoren moztu zioten.

—Beraz, gizon berak egin duela esan dezakegu? —galdetu zuen Scottek.

—Bai, probek hori diote. Oraintxe nator. Aliceren kasuko espedientearen bila noa —hori esan orduko, ondoko gela batera abiatu zen Brian—. Bai, hemen dago! Orain dela hiru aste hil zuten, Diana bezalaxe. Bere mutil lagun ohiari jarri zioten salaketa. Itxuraz, berriz Alicerekin bueltatu nahi zuen mutilak, baina hark ez zuen nahi, beste mutil batekin ezkontzear baitzegoen. Gainera, mutilak hainbat aurrekari zituen lapurretagatik eta drogak edukitzeagatik.

—Dagoeneko egin al da epaiketa? Berarekin hitz egin beharko genuke —esan zuen Scottek.

—Ez, hemendik astebetera izango da. Haren abokatuari deitu eta biei hona etortzeko eskatuko diet —esan eta telefonorantz abiatu zen Kate.

Katek deitu eta berehala etorri ziren komisariara Jaden, Alice hiltzeaz salatutako mutila, eta haren abokatua. Jaden kalean hezitako gaztea zen, 22 urtekoa. Harroputz itxura ematen zuen, baina Kateri iruditzen zitzaion barruan mutil ona zela. Galdeketa gelara eraman zituen Katek. Bertan berak galdeketa zuzentzen zuen bitartean, Brian eta Scottek ispiluaren atzetik dena ikusten zuten.

—Oraindik ez dut ulertzen zertan ari naizen hemen. Lortu duzue nahi zenutena, astebetera epaiketa izango da eta, esan zidatenez, aukera guztiak ditut kartzelara joateko. Zerbait aitortzeko ekarri banauzue, alferrik ari zarete. Nik ez dut ezer egin —esan zuen Jadenek nahiko haserre.

—Ez zaitut horretara ekarri. Zu izan ez zarela pentsatzeko arrazoiak dauzkagu; baina, horretarako, gogoratzen duzun guztia esan behar diguzu —erantzun zion Katek.

Abokatuak Jadeni keinu bat egin zion, erantzuteko esanez.

—Nik Alicerekin bueltatu nahi nuen, baina bera beste mutil batekin ezkontzear zegoen. Hasieran ez nuen onartu nahi, baina onena egoerari aurre egitea zela iruditu zitzaidan eta, beraz, berarekin hitz egin nuen telefonoz eta geratzeko proposatu nion. Niretzat oso persona espeziala izan zen, benetan maitatu dudana neska bakarra, eta behintzat bere lagun izan nahi nuen. Arratsalderako geratu ginen taberna batean. Bertan geundela pasa ziren orduak. Bere mutil-lagunarekin oso gustura zegoela eta ezkontzeko gogo handia zuela esan zidan, eta baita ezkontzara gonbidatu ere. Gure laguntasuna mantendu nahi genuen. Arratsalde bikain baten ondoren, etxera bueltatu nintzen, oso pozik, oraindik sentitzen nuena gaintzear nengoelako. Hurrengo goizean polizia betea nuen etxea. Itxuraz ni izan nintzen Alice bizirik ikusi zuen azken pertsona. Eta hori da guztia; benetan, ez nintzen neu izan.

—Lasai, Jaden! Sinesten dizut. Iritsi al zinen gorpua ikustera? —galdetu zion Katek.

—Bai, baina nahiago nuke ikusi ez banu. Ezin dut irudia burutik kendu, bere beldur aurpegia... Behatz bat moztu zioten; eskubiko eskuan zela iruditzen zait. Bularrean tiro batez hil zuten, lehenago drogatuta eta bortxatuta. Gaixoa! Hiltzaileak sufritu behar du Aliceri sufriarazitako guztia. Nahiko nuke norbaitek berari egitea berak Aliceri egingo min guztia.

—Ulertzen dut, Jaden. Lasai egon, hori egin duena harrapatuko dugu.

—Orduan, sinesten didazu? —esan zuen Jadenek, oso harriturik eta poz handiz

—Bai. Beno, hau izan da dena. Edozein berri baduzu, deitu —hori esanez agurtu zituen Katek Jaden eta haren abokatua.

Elkarrizketa guztia entzun eta ikusten egon ziren ispiluaren atzean Brian eta Scott. Berek ere uste zuten Jaden errugabea zela eta bi neskak gizon beraren biktima zirela.

Biktimen arteko erlazioa bilatzen hasi ziren, baina aurreneko begiratuan ezer ere ez zuten aurkitu. Alice familia pobreakoa zen, hezkuntza maila apalekoa. Diana, aldiz, familia aberatsekoa zen, enpresa bat sortzen hasita zegoen. Ez zirudien lagun komunik zutenik. Bien artean ez zuten antzekotasunik aurkitzen.

Ordurako ilunduta zegoen eta, horrekin batera, etxera joateko ordua iritsi zen. Katek, normalean bezala, gau osoa kasuari bueltak ematen pasa zuen, ohean, ahoz gora. Bi emakumeak lotzen zituen zerbait egon behar zuela uste zuen, hiltzaileak ez zituela arrazoirik gabe aukeratuko bere biktimak. Hurrengo egunean Dianaren familiarekin hitz egitera joan beharko zutelako zentsatu zuen, haren bizitzaz zerbait gehiago jakiteko.

Hurrengo goizean, egunero bezala, goizeko 6:30ean jo zuen Katen iratzargailuak. Esnatu, jantzi eta 7:15erako komisarian zegoen. Handik ordu laurdenera iritsi ziren Brian eta Scott, Katentzat kafe bat zekartelarik. Hirurak arbel gardenaren aurrean gelditu ziren, argazkiei begira.

—Bi biktimak modu berean hil zituen gizon berak, baina zergatik? —galdetu zuen Scottek jakin-min handiz.

—Ez dakit, baina biktimen artean erlazioa egon behar du —baieztatu zuen Brianek.

—Hori da, baina oraindik ez daukagu ezer. Dianaren familiarekin hitz egitera joan beharko genuke —proposatu zuen Katek.

Berehala irten ziren komisariatik, Dianaren etxera joateko, gurasoekin bizi baitzen. Etxea zonalde on batean kokatuta zegoen; familia aberatsa zen, ez zuten zalantzarik. Igerilekua zuten, baita lorategia ere. Oso etxe ederra zen, hiru pisukoa. Atea jo zuten hiru poliziek, eta aurpegi tristeko emakume batek ireki zien. Emakumea Dianaren ama zen eta, poliziak zirela jakindakoan, sartzeko eskatu zien. Egongelaraino eramane zituen, eta kafe bat eskaini zien.

—Sentitzen dut gertatutakoa, Rose anderea. Hiltzailea harrapatuko dugu, baina erantzungo al zenituzke hainbat galdera?

—Bai, galdetu lasai —esan zuen Rose andreak

—Zure alabak mutil-lagunik bazuen jakin nahi dugu. Baita zein ziren bere lagunak ere. Hari buruz dena jakin behar dugu —esan zion Katek Rose andreari.

—Ongi. Diana neska arrunt bat da —uf, oraindik ez dut gertatutakoa asimilatu!—. Neska arrunt bat zen, alai. Bere betiko lagunak zituen, hemen ondoan bizi dira eta txikitatik ezagutzen zuten elkar. Alaba ona zen, ikasketetan bikaina, oso arduratsua... Mutil-laguna bazuen. Dagoeneko 5 urte dira elkar ezagutu zutela. Hilabete honetan ezkondu behar zuten... ilusio handia geneukan denok. Oso mutil jatorra zen, familia onekoa.

Ezkondu behar zutela entzun zutenean, hiru poliziek elkarri begiratu zioten, aurrerapauso handia egin baitzuten kasuan. Denbora gehiagoz hitz egiten egon ondoren, komisariara bueltatu ziren hiru poliziak.

—Aurkitu dugu bi emakumeak erlazionatzen dituen zerbait! Ezinezkoa zela pentsatzen hasia nintzen —esan zuen Scottek barrez

—Bai, egia da. Hiltzailearen profila osatzen hasi beharko genuke —erantzun zion Brianek.

—Hori da! —Katek arbelerako errotulagailua hartu eta idazten hasi zen—. Gizon honek ez du maitasunean zorterik; ziurrenik gizon bakartia da. Neskak ezkondu behar zutelako hil zituen; hori da hiltzera bultzatzen duena, duen frustrazio handia.

—Arrazoi duzu, Kate, horrela izango da; baina ez dugu beste ezer. Non bilatu behar dugu orain? —galdetu zuen Brianek, ahots etsiaz

—Egia esan behar badizut, ez dut ideiarik ere —erantzun zion Katek.

—New Yorken emakume asko daude ezkontzear. Zergatik aukeratu ditu hauek? Arrazoiren bat egon behar du. Ezkontzeko lekua edo ez dakit —esan zuek Scottek.

—Arrazoi duzu, baina ez dut uste ezkontzeko lekua denik. Dianak luxuzko ezkontza bat edukiko zuen, eta ez dut uste Alicek diru kostu handi horri aurre egin ziezaiokeenik —erantzun zion Katek

—Egia... —erantzun zion Scottek, burumakur, ez baitzekien nondik jarraitu kasuarekin.

—Baina, zergatik moztu zizkien eskubiko eskuko laugarren behatzak? —galdetu zuen Brianek.

—Identitate zeinu moduan izan daiteke —erantzun zion Scottek.

—Nire ustez, arrazoiren bat egon behar du —esan zuen Brianek.

—Ea, esku eskubiko laugarren behatza... —aurpegi pentsakorrez etenaldi bat egin zuen Katek—. Hatz horretan eramaten da ezkontza-eskaerako eraztuna... Hori da! Eraztunak beretzat hartzen dituela uste dut, eta eraztunekin batera behatza ere. Hori bai izan daitekeela identitate zeinu bat.

—Orduan, “Eraztunen Jauna” izenez deitu ahal diogu ez? J.R.R. Tolkienen nobela bezala —esan zuen Scottek barrez lehertzen zen bitartean.

—Kar, kar, kar! Ba, ez da izen txarra, ez! —esan zuen Katek—. Etxera joateko ordua iritsi da, ez al zaizue iruditzen? Bihar gehiagorekin jarraituko dugu.

Hirurak etxerantz abiatu ziren. Behin etxean, Kate ohean sartu eta berehala hartu zuen lo.

Handik egun batzuetara, astelehen goizean, 7:00ak aldera, komisariara joaten hasi behar zuenean, dei bat jaso zuen:

—Kaixo, Kate! Brian naiz. Ez joan komisariara. Zuzenean Central Parkera joan zaitetz, beste hilketari bat daukagu-eta. Hemen gaude Scott eta biok. Eraztunen Jauna izan da.

Telefonoa eseki orduko abiatu zen Kate Central Parkera, ziztu bizian. Iritsitakoan, forentsearekin hitz egitera joan zen. Hark esan zion biktima hura ere gauean hil zutela, Dianaren ordu antzekoan. Hilketaren tokian dena amaituta zegoenean, komisariara itzuli ziren. Han, forentseak gorpua aztertzen amaitu zuen, eta harritzekoa ez zen berri bat eman zien: emakumea drogatu ondoren bortxatu zuten, eta gero bularrean tiro batez hil. Biktimak Amanda izena zuen.

Katek Amandaren familiarekin hitz egin zuen, eta esan zioten hura ere ezkontzear zegoela. Amandari aurkitu zizkieten gauzak oso urriak ziren: kiroleko arropa zen ondoan botata zegoena eta, beraz, giltzak eta gimnasioko txartela bakarrik zituen. Gimnasioa aztertu behar zutela iruditu zitzairen, hura izan baitzen Amandak bisitatutako azken lekua.

Kate, Brian eta Scott gimnasia joan ziren hainbat galdera egiteko asmotan. Harreragilearengana jo zuten. Hari gertatutakoaren berri eman zioten, nahiz eta bazekien, prentsak ordurako artikulu luze bat publikatu baitzuen hilketari buruz informatuz. Poliziek diskrezioa eskatu zioten harreragileari. Hiru nesken argazkiak erakutsi bezain laster identifikatu zituen harreragileak. Duela lau bat hilabete hasi ziren gimnasia joaten, gutxi gorabehera. Poliziak gimnasioko mutil guztien, hau da, langile eta bezero guztien argazki eta informazioa eskatu zion harreragileari. Hark ez zuen eragozpenik jarri.

Hiru poliziak komisarian informazioa begiratzen hasi ziren. Gizonetako gehienak ezkontuta zeuden, edota amodiozko harreman bat zuten. Beraz, horiek guztiak alde

batera utzi zituzten. Beste asko gazteak ziren, bizitza guztia zuten aurretik zutenak; beraz, haiek ere baztertu egin zituzten. Baztertu gabe zeudenen artean ohikoak bezero bat, langile bat eta ohikoak ez ziren bi bezero zeuden. Ohikoak ez zirenekin hasi ziren. Haiek oso gutxitan joaten ziren gimnasia, ez zuten inoiz biktimekin topo egin eta, ondorioz, haiek ere baztertuta zeuden. Brian eta Scott ohiko bezeroa aztertzen hasi ziren; Kate, aldiz, langilea.

—Mutilak! Aztertzen ari naizen langileak John Anderson izena du eta gimnasioaren garbiketaz eta mantentzeaz arduratzen da; beraz, bezeroen elkarrizketak entzun ditzake. Gainera, astelehen eta igandetan hartzen du jai. Eta hona hemen kasualitatea: lehenengo biktima, Alice, igande gauean hil zuten, beste biak bezalaxe. Hau izan daiteke gure gizona. Zuek bezeroari buruzko berririk bai?

—Oso ona, Kate, zerri hori harrapatuko dugu! —esan zuen Brianek.

—Ez, normaltasun handikoa dena! Bezeroa ez da “Erztunen Jauna”. Langileak izan behar du —erantzun zion Scottek.

—Denok John Andersoni buruzko informazioa aurkitzera, gizon hori aurkitu behar dugu! —oihukatu zuen Katek

Hiru poliziak ordenagailuan begira hasi ziren. Katek haren familiari buruzko informazioa lortu zuen, eta bere anaiari deitu zion. Anaia komisariara iritsitakoan, Kate eta biak hitz egitera joan ziren. Bi anaiek ez zuten erlazorik. Luke, Johnen anaia, oso langilea zen, eta enpresa on bat sortu zuen. Bere anaiak ez zuen ezer egiten, eta Luken diruaz aprobetxatzen zen, Lukek behin ezetz esan zion arte. Hori gertatu zenean, John garaje batean bizitzen geratu zen. Luke eta Kate beste ordu erdiz hitz egiten egon ziren.

Kate Brian eta Scottengana bueltatzean, garajearena esan zien. Brianek hori bilatu zuen ordenagailuan eta ikusi zuen garaje hori zela haren jabetza bakarra.

Bat-batean, Katek susto aurpegia jarri zuen.

—Zer gertatzen da, Kate? —galdetu zion Brianek.

—Gaur igandea da, eta azken bi biktimak astebeteko diferentziarekin hil ditu. Beraz, beste hilketa bat prestatzen ari dela uste dut —esan zuen Katek, beldurturik.

—Arrazoi duzu, Kate! Goazen lehenbailehen garaje horretara. Errefortzuak eskatuko ditut —Scottek hori esan eta korrika irten ziren hiru poliziak.

Garajera iristean, atea bota zuten, eta han neska gazte bat aurkitu zuten, ahoa zapi batez estalirik eta besoak sokaz loturik. Emakumea askatu eta beste poliziekin kanpora eramane zuten. Garajea miatu zuten, baina Erztunen Jaunaren arrastorik ez. Bat-batean atzeko atetik gizon bat sartu zen, John Anderson, Erztunen Jauna! Poliziak ikusi zituztenean, korrika hasi zen. Kate haren atzetik korrika joan zen, walkie-talkietik beste poliziekin hitz egiten, Johnen norabidea jakinarazteko. John jende artetik korrika

zihoan, denei bultzatuz, eta Kate haren atzetik. John irtenbiderik gabeko kale batera iritsi zen, aurrean hesi handi bat zuela. Nolabait eskalatu zuen, baina beste aldean espero ez zuen zerbaitekin egin zuen topo. Katek poliziei esan zien Johnen norabidea eta, beraz, hesia pasa eta lehenengo bihurgunean zeuden Brian eta Scott. John atxilotu eta komisariara eraman zuten.

Galdeketa luze baten ondoren, Johnek hilketak aitortzea lortu zuten. Gaztea zenean, *bullying* egiten ziotela esan zuen, ez zuelako inoiz neskalagunik eduki, ezta harreman sexualik ere. Psikologikoki eragin handia izan zuen horrek beregan.

Kate, Brian eta Scott etxera joan ziren, kasu zail bat konponduta. Kate oso pozik sartu zen ohean, baina baita nekatuta ere, egun gogorra izan baitzen. Hurrengo goizean jai zuten, ez zuten kasu berririk eta, beraz, egun librean eman zieten deskantsatu ahal izateko. Katek kafe bat hartu zuen gosaltzeko, egunkaria irakurtzen zuen bitartean. Egunkariko azala ikustean, irribarre egin zuek Katek:

ERAZTUNEN JAUNA, ATXILOTUA!

*Bart gauean harrapatu zuten John Anderson, serieko hiltzailea.
Aitortzea ere lortu zuen Kate poliziak zuzendutako talde apartak.*

Maria Manterola

Ipuin bat hirurogei minututan izkiribatzeke

Ipuin bat hirurogei minututan izkiribatzeke beharrezkoa zaizu pare bat orri zuri eta bolaluma preziatua, garrantzi handiko norbaitek oparitutua. Gelako ordenagailu eraman-garri berria ere erabil dezakezu noski; baina, kontzentrazio puntua aurkitu ahal izateko, gaurkoz ordenagailua alde batera uztea gomendatzen dizut. Ohiko orri zuri eta bolaluma ez ezik, ohe ondoko apalean dagoen arrosa koloreko erloju ñimiñoa ere erabilgarria egingo zaizu, horrela, denboraren berri izan dezazun; gainera, orratzen mugimenduaren soinuek zeure barnean murgiltzen eta kontzentratzen lagundu ahal izango dizu. Idazteko erabiliko duzun gelatxo honek xarma pixka bat izan dezan, har ezazu usaindun kandela edota etxean zehar usain paregabea uzten duten ontzitxo horrietako bat; nik, marrubi usaina duen ontzia hartzea gomendatzen dizut, marrubi usainak maitasun istorioak ekartzen baitizkit burura eta, horrela, gai horretan oinarrituz, zeure istorioa hasteko prest egongo zara.

Eseri eta idazten hasi baino lehenago, har ezazu denbora apur bat zeuretzako, erlaxatzeko. Sukaldeko kaxoi gorrian dagoen txokolate zuri eta ogi zatiak on egingo dizu; horrez gain, ez ahaztu baso bete esne hotz, txokolate zatia gorputzera barneratzen lagunduko baitizu. Pasilloaren amaieran dagoen bainugelari bisita bat egitea ere ez zaizu gaizki etorriko, ez baita atsegina izaten bete-beteen kontzentratuta eta ipuinean murgilduta zaudenean zeure eginbeharrek deitzea. Beraz, komunera bueltatxo lasaia egin, beharrezkoa duzun denbora hartuz eta, irten baino lehenago, busti ezazu aurpegia ur hotzez, pixka bat espabilatzen laguntzeko. Gelara itzuli baino lehenago, bueltatxo bat eman etxean zehar eta esnatzen garenean ez ezik patxaran gaudenean ere izaten ditugun nagiak atera. Hori egin ostean, prest zaude gelara itzultzeko, etxeko gainontzeko lekuez ahaztu eta gela bakarti batean zaudela pentsatzeko.

Ez zaitetz eseri gelako horma hutsari begira; hartu daukazun aulki erosoena, eser zaitetz leiho aurrean eta murgildu zaitetz, arnasa sakon hartuz, urrutira hedatzen den paisaia zabal horretan, gal ezazu begirada zakur edo txorien joan-etorrian. Ipuinari hasiera nolabait emateko, hitz batzuetan oinarrituko zara, kalean, bizilagunek duten elkarrizketan edota jolasean dabiltzan haurren ekintzek burura ekartzen dizkizuten hitz jokoetan. Leihotik begira zabiltzala, zure ipuina imajinatzen hasiko zara eta segituan hartuko dituzu beharrezkoak zaizkizun pare bat hitz. Hara non, halako batean, badirudi bizilagun taldea hizketan hastera doala, hor doaz lehenengo bi hitzak; baina, bat-batean, haur batek oihu egin du, baloi bat norbaitengana joango balitz bezala, eta istorioaren hasiera hitz horiek ematea erabaki duzu: *Kontuz, baloia!*

—Neska, kontuz! Baloia doa!

Horiek izan ziren lurrera ziplo erori baino lehenago entzun nituen azken hitzak. Zer gertatu ote zitzaidan? Halako batean, begiak ireki nituen. A, zer buruko mina! Jende ugari zegoen eta denak niri begira zeuden; orduantxe gogoratu nintzen gertatutakoaz: baloiarekin jo ninduen mutil koadrila batek! Amorruez beterik, lurrean eseri nintzen, inuzente koadrila horrek ez zuela kontuz jokatzeko pentsatu nuen eta esan beharreko guztia esatea erabaki nuen. Zutitzera nindoan, baina gizon atsegin batek pixkatxo bat itxaroteko esan zidan; kolpea jaso berri nengoen eta ez zuen nahi berriro ere zorabiatu erortzea. Bat-batean, hara non, ni baino apur bat zaharragoko mutil gazte bat hurbildu zitzaidan. Ez nengoen umore onean eta begiratu txar batez agurtu nuen. Mutil hura barkamena eskatzera zetorren eta nik segituan alde egiteko esan nion oihu batez, gaurkoz nahikoa egin zutela eta. Ingurura begiratu eta, nire oihoek jendearen begirada erakarri zutela ohartzean, lotsaz gorritu nintzen. Gizonari zutitzen laguntzeko eskatu nion eta, ondoren, nire bideari segitu nion.

Igaro dira lehenengo bost minutuak eta oso ongi ari zara. Hasiera polita eman diozu istorioari eta bertan murgildu zara bete-bete. Orain, esne tragotxo bat hartu eta aurrera! Istorio eder bat zain duzu aurretik!

Lagunengana nindoan, haiek kafetegian baitzeuden nire zain. Eguraldi bikaina egiten zuen eta bueltatxo bat emateko geldituak ginen. Kale batean sartu berri nintzen eta, ezustean, norbaitek bere eskua nire sorbalda gainean ipini zuen. Nor ote zen? Segituan buelta eman eta hara! Baloiaz kolpatu eta nik pikutara bidali nuen mutil berbera zen! Bere behatz leunak nire ahoan ipini zituen, hitz egin nahi zuela zirudien, eta halaxe zen, berriro ere niri barkamena eskatzera etorri zen.

—Kaixo, Markel dut izena. Lehen, lurrean zeundenean, hurbildu den mutila naiz, eta bai, neu izan naiz baloiaz kolpatu zaituena, baina nahi gabe izan da; ez zen nire asmoa eta barkamena eskatzera etorri naiz.

Bere eskua nire sorbaldatik kendu, behatzak ere bai ezpainetatik eta, buelta emanaz, nire bideari jarraitu nion. Haserre nengoen. Lotsarazi egin zidan jende guztiaren aurrean eta orain barkatzea nahi zuen. A, zer aurpegia! Gutxi geratzen zitzaidan kafetegira iristeko. Jadanik lagunek ikusi egin ninduten eta zutitu egin ziren mahaitik; baina ni orduantxe konturatu nintzen mutila atzetik nuela. Berari begira ipini nintzen eta bakean uzteko eskatu nion. Berak, aldiz, nire atzetik jarraitzen zuen; ez omen zuen nahi ni bezalako neska pinpirin eta polit bat berarekin haserre egotea. Baina, zer uste zuen? Pinpirina naizela esan didalako haserre pasako zitzaidala? Bere laguna bihurtuko nintzela? Oker zegoen, haserre handitu zitzaidan eta, pausoa azkartuz, lagunengana hurbildu nintzen. Mutil txulo horietako baten itxura zuen, neska bati piropo bat esanez, haserre pasa edo maitemindu egiten direla pentsatzen duten horietakoa. Lagunek irribarre batez agurtu ninduten eta mutil berria ote nuen galdetu zidaten barre artean; begi ona nuela eta oso guapoa zela ere esan zidaten, baina nik, buruaz, ezetz egin nien, atzetik zetorren “plasta” bat bakarrik zela esanez. Aurrez pentsatua genuen bueltatxoa ematera joan ginen eta, gertatu zena kontatzeko eskatu zidatenez, horixe egin nuen bidean zehar.

20. minutura iritsi zara eta primeran doa. Tripak ere soinua egiten dutela ohartu zara honezkero. Har ezazu txokolate eta ogi zatia, hozka egin eta esne tragotxoarekin lagunduz, segi ipuina idazten!

Atzera begiratzen zuten nire lagunak eta, mutil hura gure atzetik ikustean, barre egiten zuten. Niri, aldiz, ez zidan barregarrik ematen. Harrigarria zen, neska sorta handia ginen eta bera, bakarra izanik, ez zen lotsatzen; gindoazen tokira gindoazela, atzetik jarraitzen gintuen. Pixka bat nazkatzen hasia nintzen eta, beraz, berarekin hitz egitea erabaki nuen.

—Zer nahi duzu?

—Zuk neu barkatzea nahi dut, eta horren ondoren joan egingo naiz —erantzun zidan begi marroi argi haiek nire begiei finko begiratzen zieten bitartean.

Berari begira geratu nintzen isilik, eta nire bihotz taupadak azkar zihoazela ohartu nintzen. Urduri nengoen! Nire erantzunaren zain zegoen, eta ni, aldiz, berari begira geratu nintzen, begirada erabat galduta. Halako batean, nire begiak bere aurpegitik urrundu eta barkatzen niola esan nion, alde egiteko. Eta bera, ezer esan gabe, joan egin zen.

Igaro dira 30 minutu, istorio honek itxura ederra dauka eta marrubi usaina laguntzen ari zaizula dirudi. Haize fina sartzen da leihotik. Beraz, itxi eta segi istorioarekin!

Hurrengo egunean, kafetegi hartan elkartu ginen berriz ere. Euria egiten zuen eta han pasa genuen arratsaldea berrikeretan. Etxera itzultzeko ordua zen eta nik, ohiko bidea hartu beharrean, beste bide batetik joan nintzen, bide batez lagun bati etxera lagunduz. Haren etxe atarian agurtu genuen elkar eta nik, neure etxerako bidea hartu nuen. Haizea geroz eta zakarragoa zen, udako ekaitz gogor horietako bat zetorren, eta zer gertatuko eta aterkia hautsi zitzaidan! Euria ere indarrez ari zuen; bazirudien bustitzea tokatzen zitzaidala egun hartan. Baina ez hori bakarrik, orduan ere berarekin aurkitu nintzen, eta ez berarekin bakarrik, lagun guztiak zeuden han; bost bat mutil ziren. Ohikoa den bezala, lotsatu egin nintzen, eta koloreak gorri-gorri ipini zitzaizkidan! Markel niregana hurbildu zen eta bere kideak joan egin ziren; bakarrik utzi gintuzten. Bustirik nengoen eta hotza nuen. Orduan, berak aterkia eskaini zidan, baina baldintza batekin: niri etxera laguntzen uzten banion. Nik, lotsaturik, baietz esan nion. Aterkia ireki eta nire etxerantz abiatu ginen. Ez nekien zer esan eta berak ere ez zuen ezer esaten. Isiltasuna zen nagusi; gainera, aurrekoan bezala, bihotz taupadak azkartu zitzaizkidan eta, halako batean, ohartu nintzen zer gertatzen ari zen: maitemintzen hasia nengoen! Baina nolatan? Orduantxe, hotzikara batek zeharkatu zidan gorputz osoa, goitik beheraino, eta berak, besoa sorbaldan ipiniz, ea hotz nintzen galdetu zidan. Ezer erantzun baino lehenago, berokia kendu eta bizkar aldetik ipini zidan. Eskertu egin nion. Iritsi ginen etxe atarira; inoiz baino luzeagoa egin zitzaidan bidea, oso urduri bainengoen. Berokia itzuli eta “agur eta mila esker” huts batekin agurtu nuen, baina berak eskutik heldu eta nire gorputza bere albora hurbildu zuen.

—Ez didazu zure izena esango? —galdetu zidan begietara begira—. Jakitea gustatuko litzaidake.

—Elaia da nire izena —erantzun nion nik.

—Gogoko dut zure izena, eta gogoko zaitut zeu —erantsi zuen segidan.

Ezin nuen sinetsi gertatzen ari zena, gorputzeko temperatura izugarri igo zitzaidan. Hotzaren ordeaz, beroa nuen, dardarka nengoen. Ez nintzen inoiz horrela egon norbaitekin. Nire belarri ondora hurbildu zituen bere ezpainak eta “egon lasai” xuxurlatu zidan. Gero, nire ahora hurbiltzen zela sumatu nuen, eta nik blokeaturik jarraitzen nuen, ez nekien zer egin; baina, ohartu orduko, gu bion ezpainek elkar laztandu zuten. Polita izan zen.

Igaro dira 50 minutu. 10 soilik geratzen zaizkizu; baina lasai, baduzu astia ipuinari amaiera paregabea emateko. Beraz, esne tragotxoa ahaztu gabe, jarraitu ipuinarekin!

Ez nuen etxera joan nahi, ez nuen momentu hura amaitzea nahi eta pixka batean berarekin geratzea erabaki nuen, Musu horren ostean, beste bat egon zen, are eta hobe. Jada lasaiturik nengoen, urduritasuna joan egin zen eta hizketan egon ginen kale kantoi batean biok bakarrik.

5 minutu eskas geratzen dira dagoeneko. Bizkor, ipuinari amaiera eman beharra daukazu. Har itzazu 2 minutu ipuinaren amaiera nolakoa izango den pentsatzeko eta beste 3 idazteko. Astia baduzu eta lasai!

Primerako amaiera izan zen; baina, orduan, begirada tristuraz bete zitzaion eta burumakur jarri zen. Nik ea zer zuen galdetu nion. Markel ez zen hemengoa, oporrak igarotzera etorri zen eta bere opor egunak amaitu egin ziren. Nik, orduan, ez nekien zer egin; baina lasai egoteko esan nion, hurrengo urtera arte itxarongo niola. Berak, aldiz, buruaz ezetz zioen, ez baitzekien berriro itzuliko zen. Hiru bat minutuz isilik egon ginen biok, hitzik egin gabe eta, orduan, zutitu egin zen.

—Neska paregabea zara. Primeran pasatu dut zurekin eta ez dut triste joan nahi. Zuri esker nire oporrak zoragarriak izan dira. Mila esker!

—Nik ere primeran pasatu dut zurekin. Hasieran, beste era bateko pertsona zinela uste nuen, baina orain ohartu naiz ez zarela mutil harro horietakoa. Hurrengoan etortzen bazara, badakizu non bizi naizen.

Amaiera ederra eman genion gu bion arteko istorioari. Etxe atarira lagundu zidan berriz ere eta, ondoren, joan egin zen. Haren arrastoa iluntasunean galtzen ikusi nuen eta, begiak malkoz beterik, etxera joan nintzen.

Igaro dira 60 minutuak eta iratzargailuak jo du. Sobera geratu zaizkizun ogi zati eta txokolatea ahoratu, azken esne tantak edan eta nagiak atera ondoren, ipuina aurkezteko prest zaude. Primerako istorioa egitea lortu duzu eta amaiera paregabearekin! Zorionak!

Enara Larreta

Mesede bat

Orioko herrian inoiz ez zen gertatzen ezer aipagarririk; horregatik, inork ez zuen inoiz pentsatu hilketa bat gertatu zitekeenik halako herri lasai batean. Andrea Rekalderen aitarena zen gorpua, Motondoko inguruetan aurkitu zuen bertako bizilagun batek, txakurra paseatzen ari zela.

Antonio, Anton bere lagunentzat, portuan zegoen itsasontziei begira, bere lagunak hurbildu eta azken berriak kontatzen hasi zitzaizkionean.

—Esaten ditek buruan kolpe batez akabatu zela —esan zion Juanek, bere soldaduska garaietako lagunak—. Agian, istripu bat bakarrik izan zela esan ditek.

—Eta nolatan hilketaren susmoak? —galdetu zuen Antonek, Mari Carmen emazte zenak aspaldian egin zion puntuzko jertsearen mahukak jasotzen zituen bitartean.

—Zirkunstantziak oso arraroak hituen. Zer egiten zian Iñigok Motondon? Eta nolatan jo zian buruarekin harriaren aurka? —galdetu zion Luisek, bere beste lagunak.

—Tira, Iñigo egunero joaten huen ibiltzera eta ez huen Iñigo erortzen ikusi dugun lehen aldia izango, beti mozkortuta zitxian-eta —erantzun zion lehor Antonek.

Itsasontzitik begirada baztertu eta plazarantz begiratu zuen. Han zegoen Lourdes. Iñigoren gorpua aurkitu zutenetik, emakume hura beti han zegoen, aulki berean eserita. Hasieran inork ez zekien zein zen. Miriam ertzainari esker jakin zuten Iñigoren kasua zeraman inspektore zuzendaria zela.

—Istripu bat? —galdetu zion Mikelek Lourdesi, bere buruzagiari.

Ikertzaile taldea iritsi berria zen Donostiatik Oriora, hildako baten gorpua agertu zela-eta. Goizeko bederatziak aldera Andoni Etxabek, txakurra paseatzen ari zela, aurkitu zuen gorpua eta ertzaintzara deitu zuen.

—Bizilagunek diotenez, ohikoa da jendea hemendik paseatzen ibiltzea —jarraitu zuen Mikelek—. Agian, besterik gabe, erori eta harriarekin jo zuen burua.

—Ba al duzu zerbait? —galdetu zion Lourdesek Markel auzitegiko medikuari, Mikeli ez entzunarena eginez.

—Ez gehiegi. Ez du batere laguntzen euriarengatik ibaiaren ur-maila igo izanak, urak arrasto asko ezabatzen ditu-eta —erantzun zion Markelek latexeko eskularruak kentzen ari zela—. Autopsiaren emaitzak izan arte ez da ezer segurua izango, baina gorpuren zurruntasunagatik hiru-bat egun hilik daramala esango nuke eta, kontuan izanda nola duen puztuta sabela, alkoholarekin arazo bat duela esango nuke; beraz, agian bihotzeko bat eman zion eta, erortzean, burua kolpatu zuen.

Jauzitxo bat eman zuen Lourdesek eserita zegoen bankuan, bere sakelan mugikor-raren bibrazioa sentitu zuenean. Sakelatik mugikorra atera zuen; Mikel zen. Telefonotxo berdea sakatu eta erne entzun zuen Mikelek esaten zion guztia.

Markel ez zebilen oker. Autopsiaren emaitzek Iñigok alkoholarekin arazo handi bat zuela esan zuten; baina ez zegoen guztiz zuzen, ezta ere; Iñigo ez zen bihotzeko batez hil. Orfidal dosi handi bat irentsi zuen, baina ez gaindosi batez hiltzeko modukoa. Lehen susmoak bazituen, jada ez zuen zalantzarik. Lourdesek argi zuen Iñigo hilketa baten ondorioz hil zela.

Anton etxera itzuli zen arratsalderoko paseoa eman ostean. Galtzetako poltsikoan eskua sartu eta giltzak hartu zituen; baina, portaleko giltza zirrikitan sartu baino lehen, norbaitek barrutik ireki zion atea: Andrea zen, Iñigoren alaba.

Beti izan zen neska zurbila, baina duela hiru egunetik are eta zurbilago zegoen eta izugarritzko begi-zuloak zituen, eta ez zen harritzekoa, duela hiru egun bere aitaren gorpua aurkitu zuten eta ordutik poliziez inguraturik zeuden bai bera eta baita bere ama.

—Kaixo, Andrea! —agurtu zuen Antonek hamasei urteko neska.

—Kaixo, Anton! —erantzun zion neskak.

—Badakit zer moduz zauden galdetzea tontakeria bat dela; baina, zer moduz zaude?

—Bueno... egia esan... ez dakit —sorbaldak jaso zituen eta sakon arnastu zuen—. Anton, zuk badakizu nolakoa zen nire aita. Triste nagoen? Ba, bai, tira, aita hil zait, triste egotea ez da harritzekoa; baina, bestalde... —hasperen egin zuen— izugarritzko lasaitasuna sentitzen dut barruan. Badakit ez nukeela lasaitasuna sentitu beharko baina...

Antonek ez zion jarraitzen utzi.

—Lasai! —isilarazi zuen, eskuarekin keinu bat eginez—. Zuen azpiko solairuan bizi naiz eta dena entzuten nuen. Ez zaitetz gaizki sentitu lasaitasuna sentitzeagatik. Badakit zure aita zela baina Iñigo... —momentu batez isildu egin zen, hitz egokien bila—. Esan dezagun egia: mozkor nazkagarri bat zen. Denoi emango digu bake pixka bat.

—Egia da —onartu zuen Andreak, irribarre txiki batez.

—Eta zer moduz dago zure ama?

—Ba, egia esan, ez dakit. Sentimenduak kanalizatzeko eta barruan gordetzeko ohi-tura dauka; baina dezente ondo dagoela esango nuke. Aitak berari ere asko sufriarazi zion. Oraintxe komisarian dago. Eguerdi aldera deitu dute etxera, arratsaldean galdeketa egin nahi ziotela esanez.

Amaia urduritasunez azkazalei hozkaka zebilen. Denbora luzea eman zion bizio txar hori galtzeak eta, bere senarraren heriotzari esker, berriro hasi zen. Ingurura begiratu zuen. Gela hura ez zen pelikula eta telesail amerikarretakoa bezalakoa. Atentzioa gehien deitu ziona ispilu baten falta izan zen. Telesail polizialetan beti egoten zen trukaturiko ispilu bat; barrutik ispilu eta kanpotik leiho izaten zena. Gela hartan ez zegoen inolako ispilurik; horma zuriak besterik ez.

Gelaren erdiko mahaiak ere atentzioa eman zion. Fikzioan mahaiak metal kolorekoak eta oso sinpleak izan ohi ziren. Mahai hura, ordea, ez zen metal kolorekoa; zurezkoa zen eta berniz kapa baten azpian egurraren uztaiak ikus zitezkeen.

Amaiaren begiek aterantz begiratu zuten, hura ireki eta bi pertsona sartu zirenean. Lehenengoa emakume bat zen, berrogei bat urtekoa, eta haren atzetik mutil bat sartu zen, emakumea baino nabarmen gazteagoa, 20 bat urtekoa.

—Arratsalde on! —agurtu zuen lehor Lourdesek. Lourdes eta Mikel Amaiaren aurreko bi aukietan eseri ziren.

—Arratsalde on —erantzun zion Amaiak.

—Lourdes Erribera eta Mikel Urtega gara, inspektore eta inspektore-ordea —esan zuen Lourdesek—. Gaur goizean zure senarraren autopsiaren emaitzak jaso ditugu. Orfidala irentsi zuela diote emaitzek.

—Eta? —Amaiak kopeta zimurtu zuen— Medikuak errezetatu zion, lo hartzeko.

—Bai, baina ez dut uste gaindosi bat hartzeko gomendatu zionik —erantzun zion Lourdesek besoak gurutzatuz.

Belusezko sofa urdinean eserita, Antonek telebistari begira zegoen interesik gabe. Isiltasun handia zegoen eta eskertzekoa zen. Atsegina zen behingoagatik ez entzun beharra Iñigoren garrasiak eta emazteari eta alabari botatzen zizkion errietak. Andreak arrazoi zuen: behingoagatik, lasaitasuna sentitu zitekeen.

Asko preziatzen zituen Andrea eta bere ama. Agian, berekin identifikatzen zelako. Gaztea zenean, aitaren tratu txarrak jasan behar izan zituen Antonek. Aita alkoholiko bat zen, Iñigo bezala. Urte luzeak igaro zituen aitaren burlak jasaten eta gauean bere logelatik amaren negarrak entzuten. Horregatik, sufrimenduzko urte haien ostean, erabaki zuen inoiz ez zituela gaizki tratatuko bere emazte eta seme-alabak. Mari Carmenek inoiz ez zuen umerik izatea lortu; baina, hala ere, Antonek bere hitza bete zuen eta haren heriotza eguna arte, merezi zuen maitasun eta errespetuz tratatu zuen emaztea.

—Dozena bat aldiz esan dizuet nik ez nuela hil Iñigo —esan zuen Amaiak deseperaturik, ukondoak mahai gainean jarriz eta aurpegia eskuez ezkutatuz.

—Ulertu egin behar duzu guk protokolo bat jarraitu behar dugula —esan zion Mikelek, emakume koitadua lasaitu nahian.

Lourdesek betondoa zimurtu zuen Mikelek esana entzutean. Hiru urte zeramaten batera lan egiten eta Lourdesek oraindik ez zituen ulertzen Mikelen metodoak. Berak nahiago zituen gauzak azkar eta labur egin, beharrekoa lortu eta akabo. Mikelek, aldiz, nahiago zuen, berak esaten zuen bezala, gauzak *ondo* egitea. Lourdesek ulertu ez zezakeen arrazoiren batengatik Mikel kezkatu egiten zen jende guztiarengatik. Ziur zegoen aurrean zuten emakume hura hiltzaile bat zela eta Mikelek hiltzaile bat goxotasunez tratatzea kontraesankorra iruditzen zitzaion.

—Esan duzu asteburua zure jaioterrian pasa zenuela eta Andrea alaba zurekin joan zela —esan zion apalki Mikelek.

—Bai, egia da —erantzun zion.

—Eta ez zitzaizun burutik pasa senarrari deitzea, ea zer moduz ote zegoen galdezteko? —galdetu zuen Lourdesek irribarre ironiko batekin.

—Ez, ez zitzaidan sekula burutik pasatuko nire senarrari deitzea, ondoren asteburu guztian egonezin handi bat sentitzeko —erantzun zion lehor Amaiak. Inspektore hark sumindu egiten zuen.

—Hitz egin dezagun argi. Zure senarra alkoholiko bat zen. Auzokideek esan digutenaren arabera, zuk eta Andrea tratatu txarrak jasaten zenituzten. Zergatik ez zara zu izango hiltzailea? Iñigo seiak-zazpiak aldera hil zen eta, zure testigantzaaren arabera, bostetan irten zinen eta zortziak laurden gutxi inguruan iritsi zinen zure gurasoan etxera. Denbora asko egon zinen errepidean ordu bateko bidaia egiteko —esan zuen Lourdesek. Mikelek aho zabalik begiratu zion bere buruzagiari. Egia zen, agian, Amaia hiltzaile bat zela, baina gauza bat susmoak izatea da eta beste gauza bat zeharka oso zuzen batez hiltzailea bera zela esatea.

—Ongi da, hitz egin dezagun argi —erantzun zion Amaiak galdeketa guztian erabili ez zuen ahots tonu batez; hiraz—. Denbora luzez egon nintzen errepidean istripu bat egon zelako eta auto-ilara luze batean egon nintzelako —Lourdesek hitz egiteko keinua egin zuen, baina Amaiak isilarazi egin zuen— ltxaron, mesedez, ez dut bukatu. Badakit ezin dela frogatu ni ordu horietan errepidean egotea. Normalean, autopistatik joaten naiz; baina, kasualitate handiz, egun hartan bide zaharretik joan nintzen. Baina orain hitz dezagun garbi: nik ez nuen hil Iñigo. Egia esango dizuet, bai, askotan pentsatu nuen hiltzea, baina inoiz ez nuen egin. Gainera oso ondo pentsatua nuen nola egin: *Arsénico por compasión* filmean inspiratu nintzen. Nire aitak nekazaritzarako produktuak egiten dituen fabrika bat du; beraz, ez zen zaila izango artsenikoa lortzea, parasitoak hiltzeko produktu askok duten osagai bat da-eta. Udan alaba eta ni oporretara joaten gara. Iñigok ez du inoiz nahi izan. Oporretara joan aurretik emango nion pozoia, janariarekin batera edo, agian, bere edarian. Egia da ez dela arrastorik uzten ez duen pozoirik existitzen, baina egia da, baita ere, denborarekin gorpuek aldaketak sufritzen

dituztela. Nahiko sinplea litzateke Iñigoren bizitzarekin amaitzea, eta, zerbait gaizki aterako baldin bazen, beti izango nuen irtenbideren bat beste herrialderen batean; familia dut Europako beste herrialdeetan eta baita Ameriketan ere.

Isiltasun handi batek inguratu zituen hirurak Amaiak hitz egitea amaitu zuenean.

—Konturatzen zara esan duzunak hiltzaile baten testigantza ematen duela? —galdetu zuen Lourdesek oraindik bere harriduratik atera gabe.

—Bai, baina ez da —erantzun zion lasaitasunez Amaiak—. Hilketa baten planak esan dizkizuet, baina fantasiak izatea ez da krimen bat; denok dugu eskubidea amesteko. Ez iezaiozue eman garrantzi gehiegi oraintxe esan dizuedan guztiari, gauza bat bakarrik interesatzen zaizue; nik ez nuen Iñigo hil.

5 hilabete beranduago...

Lourdesek eta Mikelek elkarri begiratu zioten aho zabalik. Duela hamar minutu agure hura komisarian sartu zen, Iñigoren kasuari buruzko informazio baliagarria zuela esanez. Sekulan ez zuten pentsatuko halako informazioa izango zuenik.

—Barkatu baina, errepika zenezake esan duzuna? —galdetu zion Lourdesek harriduratik atera ezinik.

—Ez dakit zer ez duzuen ulertu —esan zion apalki Antonek—. Nik hil nuen Iñigo.

—Baina... —Mikel beti izan zen oso trebea hitzekin, baina une hartan ez zekien zer esan— Zuk? Zergatik?

—Mesede bat egin nahi nien Andrea eta Amaiari —erantzun zion agureak.

—Mesede bat? Iñigo hiltzea mesede kontsideratzen duzu? —galdetu zuen Lourdesek, begiak asko irekiz.

—Bai —erantzun zion, irmo— Sinets nazazue, mesede handi bat egin diet ama-alabei nazkagarri hura bidetik kenduz. Liskar bat, bat bakarra entzungo bazenuten ulertuko zenuten zergatik egin nuen egindakoa. Inoiz ez dut ulertuko nolatan tratatu dezakeen norbaitek horrela bere familia. Iñigok ez zuen bizitza merezi; zoriontsu bizitzeko behar zuen guztia zuen, familia eta lagunak, eta, hala ere, inoiz ez zen gai izan zeukan guztia baloratzeko. Nire emazteak ez zuen inoiz umerik izan, antzua zen, eta Iñigok, bestalde, alaba bat zuen eta inoiz ez zuen merezi zuen maitasunez tratatu. Norbait ez bada gai daukana baloratzeko, hobe da besteen sufrimenduarekin amaitzea.

Lourdesek besoak gurutzatu zituen eta denbora tarte luze batez Antoni begira egon zen. Egia zen hiltzaile bat zuela aurrean, baina ados zegoen esaten ari zen gauza askorekin. Markelek ere, bere senar ohiak, ez zuen baloratzen beren artekoa eta dibortziatzen amaitu zuten. Neurri batean, Antonek arrazoi zuela uste zuen Lourdesek.

—Nola egin zenuen? —galdetu zion emakumeak.

—Nola hil nuen? —Lourdesekek buruaz baietz egin zuen—. Ez zen oso zaila izan. Denbora behar izan nuen dena prestatzeko; baina, egia esan, nahiko erraza izan zen. Lo egiteko arazoak ditut eta orfidala errezetatu zidan medikuak. Banekien arratsalde hartan Amaia eta Andrea joan egin zirela; beraz, haiek joan arte itxaron nuen. Bostak izango ziren, poteatzera joateko Iñigoren ordu gustukoena. Haren etxera joan nintzen eta nirekin trago batzuk hartzera etortzeko esan nion. Inozente hark ez zuen susmorik hartu —irribarre txiki bat agertu zen agurearen aurpegian—. Segituan, izugarritzko mozkorra harrapatu zuen. Komunera joatean droga edarian jartzea pentsatu nuen baina, hain zegoen mozkorra, ez zuela beharrik izan, ia disimulurik gabe drogatu nuen eta bera konturatu ere ez zen egin. Buelta bat ematera gonbidatu nuen. Nire autora igo ginen eta Motondora eraman nuen. Izugarri erraza izan zen. Ez zuen oreka pixka bat ere, bultzada txikitxo bat eta bera bakarrik erori eta burua kolpatu zuen. Norbaitek gorpua ikusiko zuen beldur nintzen; baina, orduan, euria hasi zuen eta kezka guztiak desagertu ziren. Eguraldi harekin inork ez zuen gogorik izango handik paseo bat emateko.

Lourdesekek hasperen egin zuen eta Mikelek aho zabalik jarraitzen zuen, ezer esan gabe. Aurrean zuten hiltzailea, eta orain, zer? Espainiako legeen arabera, pertsona batek 70 urte baino gehiago baditu, ez da kartzelara joaten arrazoi humanitarioengatik. Zer egin behar zuen Antonekin?

—Nik oraindik ez dut gauza bat ulertzen —esan zuen Mikelek, bere isiltasunetik aterata—. Iñigoren kasua duela bost hilabete ireki zen; zergatik salatzen duzu orain zure burua?

Antonek bizkarrari eragin zion.

—Ezin dut aurrera jarraitu Amaia eta Andrearen bizitzak nola okertzen diren ikusiz. Ahalegin handia egin dute aurrera egiteko eta bizitza normal bat izateko; baina jendeak susmagarritzat hartzen ditu eta baztertu egin dituzte. Ezin dut jarraitu egoera hori ikusten; ez zerbait egin badezaket gauzak aldatzeko. Oraintxe bertan familia horrek ahaztu egin behar du, inoiz ez dira zoriontsu izango ez badute iragana atzean uzten. Ahaztu egin behar dute eta, kasua ixten ez den bitartean, inoiz ez dute ahaztuko. Beraz, hemen nauzue; ni naiz Iñigoren hiltzailea.

Ione Zinkunegi

Orbana

Eguzkiaren argitan jaio ohi da
izarrak berotzen duen lurrean.
Zure atzetik norabide berean
jolasean dabil ispilu atzean.
Ez ahorik ezta begirik ere,
baina zure antza du.
Ilun jantziak, gorputza zapala
hortxe lagun, zure itzala.

Leire Izagirre